AIARALDEA hemen

KALERATZEAK:
**Kaleratze ugari burutu dituzte Artiach eta Maderas de Llodio lantegietan** 2 eta 8 or.

CIRIACO MOLINUEVO:
**“Kaleko jendearekin erlazionatu naiz ni, ez soilik elizara datorrenarekin”** 14-15 or.

# “Buruko osasun arazoak ditugun emakumeok diskriminazio bikoitza pairatzen dugu”

# herriz herri

## Orozko

Urte andana (6-17 artean) zeramaten beharginek fabrikan lan egiten, baina aldi baterako laneko enpresa batek kontratatuta. Lan Ikuskaritzara jo zuten duela zenbait hilabete, eta honek arrazoia eman zien. Enpresak, baina, sei emakumeak kaleratzea erabaki du. Auzitara jo dute seiek eta datozen hilabeteetan izango dituzte epaiketak.

# Sei emakume kaleratu ditu Artiachek, Lan Ikuskaritzak kontratu mugagabea egin behar zietela esan ostean

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Artiachen Orozkoko lantegian lan egiten zeuden sei emakume kaleratu ditu enpresako zuzendaritzak. Denbora andana zeramaten fabrikan lan egiten (6-17 urte artean) aldi baterako laneko enpresa baten bidez. Baina ekainean sei beharginak kaleratzea erabaki zuen Artiachek, lan ikuskaritzak pertsona horiei kontratu mugagabea egin behar zitzaiela esan zuenean.

Fabrikako zazpi emakumek jo zuten urte hasieran lan ikuskaritzara, LAB sindikatuaren bidez. Antzeko egoeran zeuden zazpiak: urte asko zeramatzaten Orozkoko lantegian, baina aldi baterako laneko enpresa batek (Randstad) kontratatuta, kontratu labur baina jarraituekin. "Edozein ordutan deitzen gintuzten, eta gu beti geunden lan egiteko prest, batzuetan lan-txanda hasi baino ordu eta erdi lehenago deitu izan gaituzten arren. Batzuetan bajak betetzeko kontratuak egiten zituzten, baina gero baja horretatik harago zihoan edozein lan eskatzen ziguten edo, egunaren arabera, etxean geratzeko esaten ziguten", salatu dute emakumeek. Horietako batek kasu zehatz bat ekarri du gogora: "Behin fabrikako aparkalekuan lanera sartzera nindoala gelditu ninduten, egun horretan lanik ez zegoela eta etxera joatea hobe nuela esanez. Egun horretako soldata ez zidaten eman, baja bat betetzeko kontratua nuen arren".

Urteetan zehar pairatutako baldintzak salatu dituzte langileek: "Irainak, degradazio pertsonalak eta erasoak sufritu ditugu, guk geuk erosi behar izan dugu lanerako arropa... oso bigarren mailako langile sentiarazi gaituzte". Hala ere, eurek beti baiezkoarekin erantzun dutela nabarmendu dute, "beti egon gara lan egiteko prest. Gure familiekin eztabaidak izan ditugu urte hauetan zehar, hemen lan egiteari lehentasuna eman izan diogulako beti".

**Erantzuna**

Lan ikuskaritzak ekainean erantzun zien langileei. Erakunde horrek plazaratutako txostenak bi ondorio nagusi barnebiltzen ditu: Artiachen behin-behinekotasun handia dagoela (lan hitzarmenean jasotakoa baino handiagoa) eta zazpi langile horiei kontratu mugagabea egin behar zitzaiela.

"Behin-behinekotasuna oso handia da enpresan. Txanda zehatz batzuetan aldi baterako kontratua dutenak dira gehiengoa", salatu dute emakumeek, "aldi baterako enpresaren bulegoa giza baliabideenaren alboan dago, lantegiaren instalazioen barruan".

Artiacheko behin-behinekotasunaren afera ez da berria. Iaz mobilizazioa egin zuten lantegiko beharginek Bilbon, "enplegu finko eta duinaren defentsan".

Horrez gain, enpresak egiten dituen integritate-testak ere kritikatu dituzte, galdetegi horien irizpideak argi ez daudela argudiatuta: "Ez dituzte lanerako gaitasunak neurtzen, oso bestelako aferak baizik".

**Kaleratzeak**

Enpresak, baina, zazpi langile horietako bakarrari egin zion behin betiko kontratua. Gainontzekoak, aldiz, kaleratu egin zituen, modu ezberdinetan. "Kontratua indarrean genuenoi (hau da, fabrikan une horretan lan egiten geundenoi) gutunak bidali zizkiguten gurekin kontatzeari uzten ziotela esanez, 'alperrak' ginelako", azaldu dute beharginek, "higuingarria da, 17 urte daramagu alferkerian ala? Sekulako gezurra da hori".

Honakoak ez dira izan Orozkoko Artiachen lantegian jazotzen diren lehen kaleratzeak. **Aiaraldea.eus**

**Urte andana zeramaten sei langileek Artiachen lan egiten, baina aldi baterako lan enpresa baten bidez betiere**

**Behin behinean zeuden beste hainbat behargini ere deitzeari utzi diotela salatu dute**

Kontratua indarrean ez zutenekin ere kontatzeari utzi zioten. "Aldi baterako laneko enpresak lan gutxi zegoenaren aitzakia jarri zigun. Udako lana aurre-jubilatuek egingo zutela esan ziguten, orain arte egin ez dutenean. Horrez gain, aldi baterako beste langile batzuei ere deitzeari utzi diete, errepresalia gisa".

**Epaiketen zain**

Egoera ikusita, auzitara jotzea erabaki dute langileek. "Udan izan genituen adiskidetze-egintzak, baina enpresa ez zen horietako batera ere ez aurkeztu". Gauzak hala, ebazpen judizialen zain daude. Datozen hilabeteetan izango dituzte epaiketak, bana behargin bakoitzeko.

Ez da Orozkoko fabrika auzitara doan lehen aldia izango. Duela bi urte Bilboko epaitegi batek arrazoia eman zion Artiachek kaleratutako langileari, enpresak bidegabeki kaleratu zuelako. "Horrelako kasu asko daude, baina askotan akordioetara iristen dira, langileek beldurra dutelako", nabarmendu dute emakumeek.

Ebazpenak ebazpen, borrokatzen jarraitzeko determinazioa erakutsi dute sei emakumeek. "Gure partetik ahal den guztia egiten jarraituko dugu Lan Departamentuak eta Justiziak esan dutena eta urte luzez aldarrikatu duguna defendatzeko. Emakume langileak gara, eta ez digute horrek ematen digun duintasuna ezabatuko".

# Amurrio

## Ondasun Higiezinen gaineko Zerga %3 igotzea onartu du udalak

Udalbatza, artxibo irudi batean. **Aiaraldea.eus**

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Hainbat gai landu zituzten Amurrioko iraileko Udal Osoko Bilkuran, baina OHZrena izan zen afera garrantzitsuena, zerga hori "eguneratzea" onartu baitzuten, %3ko igoera ezarrita.

"2012. urtetik ez da zerga hau ukitu, zazpi urte daramatza izoztuta", azaldu zuen Josune Irabienek, "horrez gain, hobariak jasotzen dituzten errenta-tarteak handitu dira eta zatikako ordainketa ere ezarri da". Alkateak nabarmendu zuenez, ez da atsegina zergaren igoera egitea, "baina egin beharra zegoen, ez da apeta hutsa. Udalaren gastu-sabaia handitu denez plan ekonomiko bat egin behar izan dugu".

PSE-EE eta EAJren aldeko botoekin onartu zen igoera. Oposizioko bi taldeak, aldiz, abstenitu egin ziren. "Ados gaude ordenantzaren eguneraketarekin", azaldu zuen Orain Amurrioko Kepa Gonzalezek, "baina ez gaude ordenantzaren hainbat punturekin ados". Eliza katolikoa eta itunpeko ikastetxeak zerga hori ordaintzetik salbuetsita egotea kritikatu zuen zinegotziak. Etxebizitza hutsei zerga handiagoa ezarri beharko litzaiekeela ere argudiatu zuen Gonzalezek, zeuden hobariak nahikoak ez direla gaineratuta.

Antzeko argudioak plazaratu zituen EH Bilduk bere botoa aditzera emateko. "Ados gaude planteatzen den egoerarekin: udalak zerbitzuak eskaini behar ditu eta diru-sarrerak izan behar ditu horretarako", adierazi zuen Iñaki Ibarluzeak, baina "gabeziak" ikusten direla gehitu zuen, Kepa Gonzalezek aipatutako ildo beretik.

PSE-EEk, aldiz, aldeko botoaren aldeko aldarria zabaldu zuen: "Talde guztiak izan behar gara hemen hartzen diren erabakien erantzule. Udal honek zerbitzu batzuk eskaintzen ditu baina diru-sarrerak izan behar ditu horretarako".

## Presa txiki bat eraitsi du URA agentziak, ibaian bizi diren espezieen mesedetan

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Presa txiki bat eraitsi du Uraren Euskal Agentziak. **URA**

URA agentziak jakinarazi du erabiltzen ez den presa txiki bat bota duela Amurrion, Refor industriagunean, ibaia leheneratzeko egiten ari diren proiektuaren barruan. Tokiko espezieei espazio gehiago eskaintzea izango da lanen xedea.

Beste hainbat obra egingo dituzte 140 metroko ibilguan barrena. 2-4 metro inguruko altueradun horma bat eraitsiko dute, ibilgua leheneratzeko. Modu horretan, meandro txiki bat sortuko da eskuineko ertzean. Era berean, tokiko landare espezie batzuk landatuko dituzte ibaiaren ertzean, eta oinezkoentzako bidea berrituko dute, ibaitik gertuago egon dadin.

## Udaltzaingoaren eraikineko irisgarritasuna hobetuko dute

Eraikineko irisgarritasuna hobetuko dute. **Aiaraldea.eus**

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Hasi dira Amurrioko Udaltzaingoaren eraikineko irisgarritasuna hobetzeko obrak. Arrapala bat eta eskailera berriak jarriko dituzte. 34.101,99 euroko inbertsioa egingo dute horretarako, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak baliatuta.

## Txango batekin hasiko du ikasturtea Aisia Eskaut Taldeak

Urriaren 12an emango diote hasiera ikasturte berriari Amurrioko Aisia Eskaut Taldeko kideek. Irteera bat egingo dute egun horretan. Haur guztiei luzatu diete asteburupasan parte hartzeko gonbita, taldearen parte direnei zein berriei.

# herriz herri

## Artziniega

# Santa Kolomako bidea berreskuratuko du ofizioz Artziniegako Udalak

Joseba Vivanco alkatea eta Arkaitz San Jose zinegotzia, Udal Osoko Bilkuran. **Aiaraldea.eus**

Testua
**Aitor Aspuru Saez**

**Ofizialki jakinaraziko zaie ibilbidea okupatzen duten herritarrei elementu guztiak kendu beharko dituztela eta, gainera, ez da helegitea jartzeko aukerarik egongo**

Artziniegako Udalak aho batez onartu zuen Santa Kolomako bidea berreskuratzeko urratsekin jarraitzea. Ofizialki jakinaraziko zaie ibilbidea okupatzen duten herritarrei elementu guztiak kendu beharko dituztela eta, gainera, ez da helegitea jartzeko aukerarik egongo. Berez, erabakia publikoa egiteko azken tramitea izan zen atzokoa.

Prozedura legalekin jarraiki, 2017an egindako langile publikoen soldaten %0,6ko igoera bertan behera uztea onartu zuen tokiko erakundeak, Estatuko Abokatuak jarritako helegitearen ondorioz. Eudelen gomendioarekin bat egin arren, produktibitateari eta modernizazioari egindako igoera hori legez kanpokotzat jo dute epaitegiek.

EH Bilduk eta EAJk epaia onartzearen alde egin zuten eta PP abstenitu egin zen. Izan ere, Alderdi Popularreko zinegotziak leporatu zien beste taldeei legearen kontra egitea 2017an. Gainera, Joseba Elejalde popularrak alkateari galdetu zion zenbateko gastua suposatu duen epaiketak.

Horren ostean, aho batez babestu zuten udalerriko fibrozementuzko hodiak aldatzea ur horniketa sarean. Horretarako okupaziorako desjabetzak gauzatu beharko ditu tokiko erakundeak. Arabako Foru Aldundiko Obra eta Zerbitzuen Planaren barruan daude lanak eta, bide batez, frontoiko aparkalekua urbanizatuko da eta Saratxagurengo aldapa asfaltatzeari ekingo diote.

**Elkarteen hitzarmenak**

Urriko udal osoko bilkuran hiru elkarteren udal hitzarmenak ere landu zituzten eta hirurek aurrera egin zuten, nahiz eta PPk Aiaraldea Kooperatibaren kasuan aurka bozkatu. Gauzak horrela, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak 250 euro jasoko ditu euskararen erabilera sustatzeagatik, Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak 1268,40 euskarazko hedabideak bultzatzeagatik eta ASASAMek 400 euro buru osasunaren esparruan eragiteagatik.

Horiek guztiak aurrekontuetan jasota zeuden. Gurutze Gorriaren, DYAren edota Babio Guraso Elkartearen hitzarmenek prozedura bera igaro beharko dute.

**Bi mozio**

EH Bilduk bi mozio aurkeztu zituen. Alde batetik Tafallari elkartasuna adierazteko, uztaileko uholdea dela medio. Bestetik, Aldaketa Klimatikoaren aurka neurriak hartzeko. Lehenengoak PP eta EAJren botoak izan zituen, baina biek leporatu zioten EH Bilduri bakarrik Tafalla aipatzea, Mediterraneoan antzeko arazoak izan arren irailean.

## Okondo

# San Romaneko bizilagunei ur tasa itzuliko diete, zerbitzuaren kalitate eskasagatik

Testua
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Okondoko San Roman auzoko bizilagunek ez dute ur tasa ordaindu beharko. 15 herritar izango dira itzulketa jasoko dutenak, zerbitzuak eragindako kalteengatik. Eneritz Alonso alkateordeak azaldu zuenez, jario ihesa izan dute hodiek batetik; eta, bestetik, lokatza pilatu da. "Bizilagunei tasa itzuli behar zaiela uste dugu, ez baita kalitatezko zerbitzua izan", adierazi zuen udalbatzan.

Proposamenak eztabaida piztu zuen plenoan, Okondo Aurrerak "aurrekari larritzat" jo baitzuen gobernu taldearen erabakia. Sergio Tato zinegotziaren esanetan, ez da protokoloa jarraitu, "Osasun Sailari ez baitzaio berri eman". Hargatik, kudeaketa txarra leporatu zien jeltzaleei: "San Roman hiru egun egon da urik gabe. Gu egon garen 10 urteetan ez da horrelakorik gertatu". EH Bilduri berriz, oraingoan "alarma soziala" ez piztea egotzi zioten. "San Romangoei barkamena eskatu behar zaie eta enpresak hanka sartu badu berak ordaindu behar du, ez herritarrek. Aurrekari larria da EAJk ireki duena". Okondo Aurrerak kontra bozkatu bazuen ere, EAJ eta EH Bilduren aldeko botoei esker aurrera egin zuen proposamenak.

**Ugaldeko bidea**

Ugaldeko bidea konpontzeko proiektua gauzatzeko, arkitektoak txostena egitea ahobetez onartu zuten. Bestalde, Valvospain enpresako beharginei elkartasuna luzatzeko adierazpen instituzionala jarri zuten mahaigainean. Denek eman zioten babesa testuari, baina Okondo Aurrerak jakinarazi zuen aurrerantzean ez dituela mota horretako ekinbideak onartuko, "eskualdeko lan gatazkak akordioak bilatzeko ekarri behar dira udalbatzara, ez alderdiek dominak zintzilikatzeko".

**Aldaketa klimatikoa**

Aldaketa Klimatikoaren azkartasuna dela-eta, larritasuna eta konpromisoak adierazteko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk. Nola Eusko Jaurlaritzari hala Okondoko Udalari ekinbideak zehazteko eskatu zieten, zentzu horretan. Naiara Otaola EH Bilduko hautetsiak datozen 8 hilabeteetan herriko azterketa egitea exijitu zuen, besteak beste. EAJk kontra bozkatu zuen, EH Bilduk alde eta Okondo Aurrera abstenitu egin zen. Segidan, jeltzaleek emendakina aurkeztu zuten, "Arazo globalei tokiko soluzioak bilatzera konprometitzen gara" ideia nabarmentzeko. Hitz soilak direla argudiatuta, EH Bilduk EAJren ekarpenaren aurka bozkatu zuen, "azken 5 urteetan karbono emisioa asko areagotu da, deskarbonizazioa urjentea da, Eusko Jaurlaritzak ez du arrazoirik bide onean goazela esateko".

Okondo Aurrerak azpimarratu zuen eskatutako zenbait kontu dagoeneko eginda daudela udalerrian, eta gobernu taldearen kontra jo zuen: "Hau urte osoko lana da. Gobernu taldea izanda, ez bazarete kapaz gai klimatikoan ados jartzeko, argazkia garbia da. Argiteria aldatu zen, konpostajea biltzeko hondakin bilketa berritu zen, auto elektrikoa erosi zen...". Jakue Aranburuk nabarmendu zuenez, neurriak hartzearen alde dago plataforma, "baina argazki politikotik kanpo geratuko gara, abstentzioa bozkatuko dugu".

**Kale izendegia**

Kale izendegiak sortutako gorabeherak ere izan zituzten hizpide, baina datozen asteetan jorratzeko gai gisa utzi zuten, "topatutako arazoak bideratu bitartean".

## Baranbio

Datorren azaroaren 19an ospatuko da Baranbioko Euskal Jaiaren XXIII. edizioa, Garrastatxun. Arratsaldeko ekintzak guztiz irekiak izango dira, baina goizeko jardueretan eta eguerdiko bertso bazkarian ez da erdaldunik onartuko, otorduaren helburua "herriko euskaldun zahar eta berrien arteko harremanak eratzea" delako.

# Baranbioko euskaldunen bazkaria, mahaiaren bueltan erdaldunik onartzen ez duen otordua

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Euskararen aldeko jai eta egun ugari egiten dira Aiaraldean. Helburua euskara sustatzea den arren, sarritan erdarara jotzen dute ospakizun horietako parte hartzaileek, euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dutelako edota euren artean erdaldunen bat dagoelako.

Baranbioko Euskal Jaian, baina, ez dute arazo hori, goizean ez behintzat. "Goizeko egitaraua euskaldun zahar eta berrientzako da soilik, ez dugu erdaldunik onartzen", nabarmendu dute Belaikiko kideek. 1998. urtean sortu zen elkarte hori, baina bi urte lehenago ekin zioten jaia antolatzeari, Baranbioko bizilagun batzuen artean. "Herrian badaude euskaldun zaharrak, Orozkotik eta Euskal Herriko beste txoko batzuetatik bertaratutakoak. Euren arteko topagune bat antolatzea izan zen helburua".

Euskaldunen "arnasgune" bat sortzearen beharrak bultzatu zituen askorentzat drastikoa izan daitekeen erabakia hartzera: Erdaldunei sarrera ukatzea. "Talde batean erdaldun bat baldin badago segituan igarotzen gara gazteleraz hitz egitera. Horregatik iruditu zitzaigun berebiziko garrantzia zeukala soilik euskaldunentzako izango zen egun bat antolatzeak. Jai horretan euskaldunen arteko harreman batzuk sortzen dira gero egunerokoan mantendu egiten direnak", nabarmendu dute antolatzaileek.

**Aurtengo egitaraua**

Horregatik da goizeko egitaraua euskaldunentzat soilik. Aurtengo egitarauak ohiko eskema jarraituko du: triki-poteoa egingo dute 14:00etan eta handik ordubetera hasiko da bazkaria. Bazkalosteak, aldiz, Sebastian Lizaso eta Oihana Iguaran bertsolariak arituko dira kantuan.

"Arratsaldean beste hainbat ekintza egingo ditugu; eta horiek bai, pertsona guztiei irekiak daude", jakinarazi dute euskara elkarteko kideek. 18:30ean dantzaplazan aritzeko aukera egongo da Patxi Perezekin. 20:30ean, aldiz, erromeria egongo da, gauera arte.

Bazkarian erdaldunak ez onartzeak urteetan ika-mika batzuk sortu izan dituela aitortu dute Belaikiko kideek. "Batzuetan esan digute erdaldunak baztertzen ditugula, baina gu ere baztertuak sentitu gara askotan euskaldun moduan", azaldu dute, "beste erdaldun batzuek esan digute bazkarira joaten uzten badiegu ez hitz egitera konprometituko direla, baina hitz egiten ez badute ez du zentzurik joateak". Hala ere, gaur egun "oso barneratua" dago herritarren artean euskaldunak soilik onartzearen erabakia, Belaikiko kideen ustetan. "Erdaldunek ere oso argi dute goiz eta eguerdikoa euskaldunentzako jaia dela soilik. Oso gaizki ikusia dago bazkarian erdaraz hitz egitea".

Belaiki elkarteko kideek gogoratu dute Aiarako herriek euren euskalki propioa izan zutela. "Baranbion galdu ziren euskalki horren azken aztarnak. Horren gaineko informazioa lortu genuenean amorru handia eman zigun". Horregatik dute bazkarian erdaldunak ez onartzearen irmotasuna, horrelako galerarik berriro gertatu ez dadin.

Bertsolariak egongo dira bazkalostean. **Baranbioko Administrazio Batzarra**

# herriz herri

## Aiaraldea

**IRATXE LETONA PASTOR**

*AIARALDEKO MUGIMENDU FEMINISTAKO KIDEA*

***Lizarratik Durangora***

*Euskal Herriko hainbat txokotatik etorritako neska* gazteak bildu gara urriaren 4 eta 5ean Lizarrako karriketan; saretu, hausnartu, eztabaidatu eta formatuz, V. jardunaldi feministetara ahots propioz joateko asmoz.*

*Lehenengo arratsaldean, neska* gazte taldeen diagnostikoarekin batera, aurrera begirako gure norabide eta erronkak zehazten hasi ginen. Ostean, gure genealogiari erreparatzeko tartea ere izan genuen, aurreko belaunaldietako militanteekin batera esperientziak konpartituz.*

*Larunbatean, aldiz, autodefentsa feministaren inguruan ibili ginen solasean eta honekin batera amaitu genuen lantaldekako dinamika, hitzaldiei hasiera emanez. Feminismo dekoloniala, ekofeminismoa, euskal langile andreak, bollera izatea Euskal Herrian eta abar luze batez aritzeaz gain, autodefentsa feministarako tresnak sortzeko aukera ere izan genuen.*

*Baina hau guztia ez da Lizarran amaitzen. Orain, herrietan lanean jarraitzea dagokigu. Autodefentsa feminista armatzat, erronka berriei eustera goaz.*

*"Ezinezkoa zela esan ziguten, baina berandu. Askatasuna, ametsa ezin zela izan aspaldi ikasi genuen".*

# Sei sarirekin dator indarkeria matxistari aurre egiteko "Beldur Barik" lehiaketa

Testua
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Beldur Barik lehiaketako iazko partaideen argazkia. **Urduñako Udala**

Emakundek sustatutako egitasmoa da Beldur Barik Jarrera. Modu horretan nahi dute gazteen artean kontzientziazioa eta sentsibilizazioa areagotzea. Gainera, azken urteetako ildoari jarraiki, eskualdeko udalerrietara egokitutako ekimena prestatu dute aurten ere. Hain zuzen, Beldur Barik Aiaraldea lehiaketaren baitan, sari bereziak eskuratzeko aukera izango dute Urduña, Amurrio, Aiara, Artziniega, Okondo, Laudio eta Orozkoko gazteek. Ikus-entzunezkoak ekoitzi beharko dituzte horretarako.

Antolatzaileek azaldu dutenez, sei sari egongo dira: bideorik onenentzat 400 euroko sei sari, eta 300 euroko beste bi. Izan ere, poemak, fotonobelak edota bestelako euskarriak ere onartuko dira. Txapelketako oinarri eta ezaugarriak www.beldurbarik.eus webgunean daude.

Aipatutako sei sariak hiru kategoriatan bereiziko dira: 12-13 urtekoak, 14-18 artekoak eta 18-25 bitartekoak. Maila guztietan lehen eta bigarren lanik onenak aitortuko dira, 400 euroko sariarekin. Horrez gain, ikus-entzunezkoa ez den lanik borobilena 300 eurorekin aitortuko dute sari bereziaren bidez, baita parte hartze saria ere. Lanak entregatzeko epea azaroaren 5ean amaituko da. Eskualdeko txapelketaren sari banaketa Okondon izango da, azaroaren 22an.

**Zer da Beldur Barik jarrera?**

Beldur Barik jarreraren definizioaz galdetuta, "indarkeria sexistaren manifestazio anitzak ikusaraztearen garrantzia" nabarmendu dute antolatzaileek, "eguneroko testuinguru eta esparru guztietan hautematen den desorekaren ondorio direnak". Ekimenaren bidez nahi dute gazteek jasaten duten indarkeria matxista hautematea, edota beste adiera batzuk, "translesbohomofobia" kasu. "Erreferente positiboak erakutsi nahi ditugu, ahaldundutako neska indartsuak eta indarkeria sexistaren aurkako borroka aktiboan inplikatzen diren mutil begirunetsuak, zeintzuek neskei bakarrik eragiten dion zerbait ez dela erakusten duten".

Sustatzaileen esanetan, planteatzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan litezke. "Indarkeria hau sortzen duten faktoreak eta bere manifestazioak identifikatzeaz gain, kritikoa, urratzailea eta positiboa den jarrerarekin aurre egiten zaio", erantsi dute.

# Astebete aurreratu da txakolinaren mahats-bilketa, klima dela eta

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Iragan astean ekin zitzaion Arabako Txakolinaren uzta biltzeari, ohikoan baino astebete lehenago. "Mahastien ontze prozesua izugarri aurreratu da eguraldi eguzkitsu eta leunaren ondorioz", aitortu du Jose Antonio Merinok, "egon diren euriteak arinak oso onuragarriak izan dira landareentzat". Euriteak oso modu "mailakatuan" egon direla azaldu du jatorrizko izendapenaren gerenteak, "mildiu gaixotasuna hedatzea ekidin du horrek". Hala ere, botritis onddoaren agerpenarekiko beldurra daukatela gaineratu du Merinok, "euriteek datozen bi asteetan jarraitzen badute batez ere".

Dena dela, aurtengo mahats bilketa "oso ona" izango delakoan dago amurrioarra, mahats aleak oso osasuntsuak izango direla eta iaz baino fruitu gehiago jasoko direla aurreikusten dutelako. Kalitatea ere "apartekoa" izango dela iragarri dute.

Iragan astean hasi zen mahats bilketa. **Aiaraldea.eus**

herriz herri

# Urduña

## Edadetuen zentroko lorategiak, hartu-emanak landatzeko ortu

Urduñako edadetuen egoitzan gauzatuko dute egitasmoa. **Urduñako Udala**

Testua
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Urduñako Edadetuen Zentroko lorategian, umeak dira orain nagusi. Izan ere, Urduñako Udalak belaunaldien arteko harremanak sortzeko dinamika sustatu du. Finean, lorategiko zenbait gune eskoletako umeen baratz bilakatuko dituzte. Modu honetan, adin ezberdinetako bizilagunen arteko hartu-emanak indartuko dira. Irailaren amaieran ekin zioten proiektuari, instituzioak jakinarazi duenez. "Udal egoitza baratze ekologiko bihurtzeko proiektuaren bigarren fasea da", zehaztu dute. Eremua egokitzearekin batera, helburu hezitzailea jarri diote jardueari: "Herri Eskolako ikasleek ere parte hartuko dute, eta espazio hezitzailea izango da, belaunaldi arteko trukerako eta elkarbizitzarako". Ideia Ongizate Sailak proposatu zuen duela urtebete, garapen agroekologikorako Ekoizpen zerbitzuarekin elkarlanean. Ordukoan, lorategien birmoldaketa beharra azaleratu zuten, "permakulturan oinarritutako espazio natural aktibo eta ekologikoak egiteko".

Belaunaldiartekotasuna sustatzeko erabaki zuten adinekoen egoitzako lorategiak baliatzea, gurpil aulkian dabiltzanentzako irisgarriak baitira. Urduñako Udalak azaldu duenez, sei espazio atonduko dituzte material birziklatuarekin.

Hala, Lehen Hezkuntzako maila bakoitzari gune bat egokituko zaio, "6 eta 12 urte arteko haurrei, alegia". Bertan egingo dituzte hilean behin tailerrak, gai ezberdinak uztartuz, "Errefuxiatuen Gaia edota Arimen gaua, kasu. Horrez gain, lurra landu eta nekazaritzaz ere ikasiko dute". Egoitzako edadetuek ere hartuko dute parte tailerretan, ikasleak lagunduko dituzte baratza zaintzerako orduan. Edozelan ere, urduñar guztiei luzatu diete modu boluntarioan parte hartzeko gonbita.

## Dozenaka lagun batu dira ibaia garbitzeko auzolanera

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Ibaia garbitzeko jardunaldi berria antolatu zuen Urduñako Bitxobola talde ekologistak igandean. Dozenaka bizilagun batu ziren auzolanera.

Egiten duten hirugarren jardunaldia izan da honakoa. Duela urtebete egin zuten lehena eta martxoan, aldiz, bigarrena.

Igande goizean egin zuten auzolana. **Iratxe Murias**

LAN ESKAINTZA eta LAN POLTSA

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEAK KAZETARIA BEHAR DU

**IZEN EMATEA:**
Interesa duten pertsonek, curriculuma eta aurkezpen gutuna bidali beharko dute **lanpoltsa@aiaraldea.eus** helbidera, **urriak 10** baino lehenago.

AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA

# herriz herri

## Laudio

## Ia milioi erdi euro baliatuko dituzte ikastetxeetan obra ugari egiteko

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

495.000 euro baliatuko dituzte Laudioko hainbat ikastetxeetan obrak egiteko. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzatuko du gehiengoa (%60). Gainontzeko dirua udalak jarriko du.

Aretako Fabian Legorburu ikastetxean 108.000 euro inbertituko dituzte eraikinaren fatxada berritu eta kirol zelaien argiteria hobetzeko. Bi kantxak aldi berean erabili ahal izatea ahalbidetuko dute obrek. Latiorron 57.000 euro inbertituko dira jolastoki estaliko hezetasunak kentzeko. Horrez gain, beste 256.000 euro baliatuko dituzte irakasleen gelako eta guraso elkartearen eraikineko irisgarritasuna hobetzeko, eta Menendez Pidaleko eraikinari igogailua jartzeko.

Helduentzako Ikastetxean ere hainbat lan gauzatuko dituzte. Eraikinaren sarrerako pergola kenduko dute, esaterako, segurtasun irizpideak betetzen ez dituelako. Sabaian ere berrikuntzak egingo dituzte, hezetasunak dituelako.

Lamuza Ikastetxean, aldiz, saskibaloi kantxako zorua konponduko dute.

## Hiru langileren kaleratzea salatzeko mobilizatzen ari dira Maderas de Llodion

Elkarretaratzea egingo dute berriz datorren astelehenean. **Aiaraldea.eus**

Testua
**Aitor Aspuru Saez**

Maderas de Llodio enpresako sindikatuek jakinarazi dutenez, 3 langile bota ditu zuzendaritzak. Zehazki, irailaren 27an izan ziren kaleratzeak, errendimenduaren beherakada argudiatuta. Langile batzordeak ukatu egin ditu akusazioak.Horregatik, mobilizazioa egin zuten astelehenean eta urriaren 14an ere enpresako atarian egongo dira, 13:00etatik 15:00ak arte, hain zuzen.

Sindikatuek azaldu dute enpresak gabeziak dituela eskarietan eta horregatik lan bolumena jaitsi dela. Horren ondorioz, langile batzordeak eta zuzendaritzak adostu zuten irailean ostiraletan lanik ez egitea, kaleratzeak ekiditeko. Orain, beharginen antolakundeek leporatu diote enpresari agindutakoa ez betetzea.

LAB, ELA, CCOO eta UGT erakundeek gehitu dute urtebete bakarrik igaro dela Garnica taldeak Maderas de Llodio erosi zuenetik eta agerikoa dela zein garrantzi gutxi ematen dien langileei.

## Hasi dira Kultura Etxeko obrak

Testua
**Izar Mendiguren Cosgaya**

Teilatuak eta arkupeetako sabaiak berrituko dituzte, besteak beste. **Aiaraldea.eus**

Hasi dira dagoeneko Laudioko Kultura Etxea eraberritzeko obren lehen fasea. Eraikinen sabaiak eta leihoak berritzea izango da lanen xedea, besteak beste. Altzairuzko hezurdura mehe batzuez osatutako kristalak jarri nahi ditu Arabako Foru Aldundiak, "jauregiak XX. mendearen hasieran zuen itxura berreskuratzeko".

Teilatuak berrituta, aldiz, isolamendu termikoa hobetu nahi dute. 3,3 milioi euro baliatuko dituzte guztira.

**"Ahalik eta eragin txikiena"**

"Obrek Kultura Etxeko erabiltzaileentzako izango duten eragina ahal bezain beste txikitzen saiatuko gara", jakinarazi du Ander Larrinaga zinegotziak, "bertako kultur elkarteekin harremanetan gaude euren jarduerak bertan behera utzi ez ditzaten, alternatibak eskainiz. Kasu gehienetan ez da arazorik egongo. Kasu batzuetan, aldiz, bai, mugitu ezin daitekeen ekipamendua dutelako. Kasu horietan baliteke uneren batean ekintzaren bat bertan behera utzi behar izatea, baina denborarekin abisatuko zaie, ahalik eta eragin txikiena izateko".

Berrikuntza lanak urtebete baino gehiago luzatuko direla aurreratu du udal ordezkariak, "datorren urterako ez dira guztiz amaituak egongo".

Horrez gain, Ortuzainaren etxeari begira, erabilera batzuk pentsatuak dituztela jakinarazi du Larrinagak, "baina aurrerago emango dugu horren berri".

## Etxebarri Baserria haur eskola bilakatu nahi du udalak indarrean dagoen legealdian

Testua
**Aitor Aspuru Saez**

2019-2023 legealdirako plana aurkeztu dute EAJk eta PSE-EEk. 19 orrialdeko dokumentuak jasotzen ditu Udal Gobernu Taldeak egikaritu nahi dituen asmoak.

Guztira, 130 ekimen dira, eta 5 ardatzetan banatu dituzte: enplegua eta suspertze ekonomikoa, auzoak, zerbitzu publikoen kalitatea, babes eta sustapen soziala eta erakundearen kalitatea.

**Proposamen nabarmenenak**

Aldi berean, 5 ildoak 11 ataletan zatitu dituzte, eta horien barruan hainbat iniziatiba jaso dute.

Horien guztien artean, nabarmenenak hurrengoak dira: adinekoen egoitza ohia Musika Etxea bilakatzea, liburutegi eta ikasketa gelak irekitzea, gaztelekua herrigunera eramatea, arte galeria atontzea kaleetan, San Rokezar erretiratuen egoitza handitzea, Literatura Saria abiatzea euskaraz ume, gazte eta helduentzat, jantoki soziala sortzea adinekoentzat, Etxebarria Baserrian haur eskola instalatu daitekeen ikertzea, Lan deialdi publikoak egitea, Laudioko Garapen Agentzia aldatzea eta enpresa proiektuak erakartzea, terrazen araudi berria sortzea, Arrañoko gune berdea berpiztea aisialdirako, auzoetan kultura jarduerak sustatzea, euskarazko hitz laudioarren hiztegia argitaratzea, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikustea, erabilera publikorako espazioen araudi berriak sortzea Aldai eta Alberto Acero plazetan, Parke lineala bultzatzea Orozkoraino, Españica Etxea eraistea, wifi sareak sortzea herriko kaleetan eta aparkaleku berriak prestatzea.

## Trenbide gaineko metalezko zubia urriaren 22an kenduko dute

Urriaren 22an ekingo diote Latiorro auzoa eta herrigunea lotzen duen metalezko zubia kentzeari.

Ander Añibarro alkateak azaldu du berehala hasiko direla zenbait prestaketa lan egiten, trenbideko kateak babesteko, besteak beste. Gauez izango da eraisketa, trenen trafikoa ez eteteko.

Finean, urrian garabi batek zubia bere lekutik mugituko du, eta txatarra bilakatuko dute, gero saldu ahal izateko.Latiorro eta Laudioko herrigunea lotzen duten bi tunel daude jadanik.

Aurreko Udal Gobernu Taldeak abiatu zuen ekimena metalezko zubia eraisteko. Izan ere, ez ditu irisgarritasun arauak betetzen.

Hasierako asmoa zen apirilean egikaritzea, martxoan esleitu baitzituzten lanak 77.000 euroren truke. Hala ere, prozedura atzeratu egin da.

## Laudio

**IKER DUARTE**
*OIHALAK ZABALTZEN ANTZERKI TALDEA*

### *Antzokiaren zain*

*Oihala familiako kide guztiok (agertokiaren atzekaldeko itzal urrunean aterpetuta dauden soinu eta argi teknikarietatik, urtero euren garra tragikomedia kimerikoetan oparitzen duten antzezle umil baina apasionatuetara) gozatu izan dugu hamarkada luzez Laudioko bizilagunei ilusioa oparitzearen ohore handiaz.*

*Eztabaida luzeak ekarri dituen antzokiak, bizkarrezur kultural desiratu zein beharrezkoa, proiektu itxaropentsu bat dirudi, herri honen eskaintza artistiko mugatuari baliabideak eskaintzeari begira.*

*Horregatik, gure garra gustura batuko da antzokiaren jaiotza argitzen duten horiengana. Oihalaken antzerki proposamen xume baina iraunkorrak eraikin berriaren beiraz hornitutako pareten artean jarraitzea espero dugu.*

# Enpresak sortzeko diru-laguntzen deialdian parte hartzeko epea, urriaren 18ra arte

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Autoenplegua sustatu eta enpresa berrien sorrera bultzatzeko diru-laguntzak emango ditu Laudioko Udalak. Urriaren 18ra arte izango dute interesdunek eskaerak aurkezteko epea. Iaz hasitako enpresa proiektuei bideratutako laguntza programa izango da.

Tokiko garapen agentzian lortu daiteke ekimenari buruzko informazio gehiago, 94 403 49 80 telefonora deituta, edo agentzia@laudio.eus helbide elektronikora idatzita.

## Saratxo

# Landetxe gisa egokitu nahi dute eskola zaharreko eraikinetako bat

131 metro koadro ditu eraikinak, bi solairutan banatuta. **Aiaraldea.eus**

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Herriko eskola zaharreko bi eraikinetako bat (Gizarte Etxe gisa erabiltzen ez dena) berritzeko prozedura abiatu du Saratxoko Administrazio Batzarrak. Etxea goitik behera erreformatu nahi dute, landetxe moduan ireki ahal izateko. Administrazio batzarreko kideen asmoa da landetxe horren kudeaketaz arduratuko litzatekeen pertsona edo familia bat bilatzea, "Saratxokoa, ahal dela".

Eraikinak 131 metro koadro ditu bi solairutan banatuta. Beheko aldean sukaldea, egongela eta jangela jarri nahi dituzte. Goian, aldiz, hiru logela eta komuna egongo lirateke. Aurreratu dutenez, 100.000 euro inbertituko dituzte lanak egiteko, beste instituzio batzuen laguntzak baliatuta.

### 100.000 euro inbertituko dituzte lanak egiteko, beste instituzio batzuen laguntzak baliatuta

Ateak aldatu eta barnealdeko tabike gehienak eraitsiko dituzte modu horretan, beste hainbat gune berritzearekin batera. Berogailu, saneamendu, telefono eta elektrizitate sistema berriak ere atonduko dituzte. Eguzki plakak jartzea da administrazio batzarraren asmoa, energiaren gastua txikiagotzeko.

elkarrizketa

# “Aniztasun handia dago buruko osasun arazoak ditugunon artean”

ASASAM ELKARTEKO ERABILTZAILEAK DIRA **ESTIBALIZ CAMINO BENGOA** (LAUDIO, 1965) ETA **MARIA ISABEL GARCIA PEÑA** (LAUDIO, 1972). BURUKO OSASUN ARAZOEN INGURUAN MINTZATU DIRA, EUREN BIZIPENETATIK ABIATUTA.

Testua eta argazkia
**Txabi Alvarado Bañares**

**Nola azalduko zenukete zertan datzan buruko osasun arazoak izatea? Nola bizi dituzue zuek?**

*Estibaliz Camino Bengoa:* Niretzat penagarria da, baina beste edozein gaixotasun bezala. Gaixorik egotea ez da gustuko duzun zerbait. Ezgaitasun moduko bat da, baina bizitza normalizatua egiten uzten dizuna orokorrean. Tratamendu mediko bat duzu baina bizitzan ondo moldatzen zara, egonkor zaudenean edo depresio bat ez duzunean.

Nik bi gradu egin nituen Lanbide Heziketan: sukaldari laguntzailearena eta ostalaritza eta turismoarena. Lan Harremanei buruzko ikasketak egin nituen berandu ago. Orain oso ondo bizi ditut nire buruko osasun arazoak. Ospitale espezializatuan sartu nintzenean buruko gaixotasunari buruz nituen estigma eta tabu guztiak erori zitzaizkidan, nire buruarekiko nituenak batez ere. Oso ondo moldatu nintzen bertan. Jende asko ezagutu nuen. Bakoitzak bere arazo eta bizipen propioak zituen: batzuek ikasketak zituzten, beste batzuk gazteak ziren...

**Ez dago perfil zehatzik, beraz.**

*E.C.B:* Ez. Ospitalean bazeuden memoria galdu zuten pertsonak, gaitz neurologikoren bat ere zutelako. Tabu guztiak erori zitzaizkidan.

Laguntza handia jasotzen dugu bizitzaren hainbat alorretatik. Buru osasuneko zentroak babestu egiten gaitu eta medikazioa nola hartu behar dugun esaten digu. Asasametik jasotzen dugu laguntzarik handiena, psikologoak eta alor horretako beste profesional batzuk daudelako: hezitzaileak, gizarte langileak... eurek ez zaituzte pertsona gaixo bezala ikusten, hori zure parte den zerbait delako. Ez da gaixotasun bat: alderdi ugari ditu bizitzan, garatu daitezkeenak eta traumatik ateratzen lagundu ahal zaituztenak. Lan egin dezakezu, ikasi, denbora librea izan... nik orain Asasamen tailer okupazionalean baino ez dut lan egiten. Urte batzuk eman nituen lan egiten eta orain pentsio bat jasotzen dut.

*Maria Isabel Garcia Peña:* Niretzat, buruko osasun arazo bat honetan datza: une batean konturatzea buruaren aldetik ez zarela ondo sentitzen. Une zehatz batean izan ditzakezun sintomak dira, baina beharrezko babes, laguntza eta baliabideekin (elkarteetara edo osasun zentrora joz) beste edozein pertsonaren moduko egonkortasuna lortu dezakezu eta bizitza erabat “normala” egin. Ez zait “normal” hitza gustatzen, hain da erlatiboa. Baina bizitza betea eta egunerokoa bizi dezakezu, beste edozein pertsonak bezala.

Batzuetan garrantzi gehiegi ematen zaio diagnostiko bat izateari, baina ez da horren berebizikoa: une

**“Suizidioa prebenitzeko beharrezkoa da gaiaz hitz egitea”**

Buruko osasun arazo bat izateak nire inguruan gertatzen diren zenbait gauzekiko sentsibilitate handiagoa izatea eragin dit. Sentikortasun berezia garatzen duzu eta gauza batzuez kontzienteagoa izatea eragiten dizu horrek.

*E.C.B:* Pertsonak diren bezala baloratzen ikasten duzu, aniztasun funtzionala izan edo ez.

*M.I.G.P:* Ni une honetan lanean nago eta gustura nago nire bizitzarekin.

**Buruko osasun arazo batekin normaltasunez bizi daitekeela aipatu duzue, baina estigmatizazioa ere hor dago, ez?**

*E.C.B:* Nire ustez bai, estigmatizazioa pairatzen dugu. Hainbat mota daudela esango nuke. Norberak bere buruarekiko duen tabua da lehenbizikoa. Hori oso zehatz batean sintoma batzuk dituzu baina gero egonkortasuna lortzen duzu eta bizitza oparoa egin dezakezu.

**“Batzuetan garrantzi gehiegi ematen zaio diagnostiko bat izateari, baina ez da horren berebizikoa. Une zehatz batean sintoma batzuk dituzu baina gero egonkortasuna lortzen duzu eta bizitza oparoa egin dezakezu”**

*E.C.B:* Badaude halakorik erdiesten ez duten pertsonak ere, duten gaixotasun mailagatik. Baina zaintzak jasotzen dituzte eta egonkortasun apur bat lortzen dute.

**Buruko osasun arazoak oso anitzak dira, beraz.**

*M.I.G.P:* Bai, oso eremu zabala da, pertsona bakoitzak bere egoera propioa duelako. Aniztasun handia dago. Nik pertsonalki naturaltasunez esaten dut. Pozik nago daramadan bizitzarekin. Uste dut buruko osasun arazo bat diagnostikatu izanak lagundu egin nauela nire bizitza bideratzen. Horren ondorioz, orain gehiago zaintzen dut nire burua. Adiago jarraitzen ditut nire eguneroko ordena eta errutinak. Nire bizi kalitatea hobetu egin da.

agerikoa da gaztea zarenean. Ez duzu bizi-esperientzia handirik eta oso babesgabe sentitzen zara. Ez dakizu zer egin: ikasten jarraitu, lan egin... zure lagunek zurekin egon nahi ez dutela ikusten duzu, zerbait gertatzen zaizula ikusten dutelako. Ez zara gai jendearekin lagunarteko harremanak garatzeko. Ez duzu gainontzekoek gertatzen zaizunaren berri izatea nahi, ezkutatu egiten duzu. Ingurukoek zerbait gertatzen zaizula sumatzen dute eta euren bizitzetatik apartatzen zaituzte. Nik hori sufritu dut, eta mingarria da. Hori da estigma moteta-

# elkarrizketa

ko bat. Horrez gain, zaku berean sartzen dira buruko gaixotasunak dituzten pertsona guztiak. Ezin da hori egin, bakoitza bakarra eta ordezkaezina delako. Egia da pertsona bakoitzak bere mugak dituela, gaixotasunik ez dituztenak ere.

*M.I.G.P:* Zure buruari jartzen diozuna da mugarik handiena. Egon daitezke oztopoak baina guk ere gaitasun handia dugu gauzak aldatzeko.

**Jende askok zoramenarekin lotzen ditu buruko osasun arazoak. Zer esango zenukete horren aurrean?**

*M.I.G.P:* Informazio faltagatik gertatu daiteke hori. Asasam elkarteak babesa eta baliabideak eskaintzen dizkie une txar bat igarotzen ari diren edo buruko osasun arazo bat duten pertsonei. Edozein pertsonari gertatu ahal zaio hori. Buruko osasunaren alde egiten dugu lan elkartean eta familiei laguntzen diegu.

Diagnostikoa ez da horren garrantzitsua. Sintoma batzuk jazotzen dira, baina egonkortasuna lortuta

**“Ospitalean sartu nintzenean buruko gaixotasunari buruz nituen estigma eta tabu guztiak erori zitzaizkidan”**

bizitza normala egin daiteke, beste edozein pertsonak bezala. Hobeto sentiarazten gaituzten laguntza eta baliabideak jasotzen ditugulako jotzen dugu Asasamera. Gure bizi kalitatea eta gure familiena hobetzen dugu horrela.

**Zer nolako ekintzak egiten dituzue Asasamen?**

*M.I.G.P:* Jarduera asko garatzen dira. Etxez etxeko arreta zerbitzua dago. Tailer psikosoziala ere burutzen da, hainbat jarduerarekin: kirola, ariketa kognitiboak, abilezia sozialak, batzarrak, sukaldaritza saioak... gune lasaia da. Zentro okupazionala ere dago, lan merkaturatzera bideratuago dagoena. Eskulanak egiten dira, hizkuntzak ikasi, ortu ekologikoa atondu, trebezia sozialak garatu... besteak beste.

Nik lehen sarriago jotzen nuen tailer horietara. Une honetan ezin naiz horrenbestetan gerturatu lanean nagoelako. Moda diseinua ikasi nuen, baina garbitzaile moduan lan egiten ere pozik nago. Elkartegintzan ere ardura ugari ditut. Elkarteko zuzendaritzan, estatuko komiteetan eta hainbat batzordeetan hartzen dut parte. Asasamera ahal dudanean joaten naiz, oso ondo sentitzen bainaiz bertan. Nire bizitzaren parte da. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiot Asasami buruko osasunaren alde egiten duen lan handiagatik.

**Hobekuntzarik egon da buruko osasun arazoen normalizazioan?**

*E.C.B:* Nire ustez bai. Zuk zurekiko edo zure senide batekiko duzun estigmatizazioa da garrantzitsuena. Buruko gaixotasuna duen anaia bat dut nik, eta 17 urtetan krisi ugari pairatu ditugu, orain oso egonkor dagoen arren.

Uste dut jendeak geroz eta gehiago ulertzen duela zertan datzan buruko osasun arazo bat izateak. Auzokideek hobeto ulertzen dute, Asasamen egiten dugun lanari esker batez ere. Hedabideek askotan arinkeriaz lantzen dute gaia.

Uste dut oraingo gazteek hobeto ulertzen dutela, pertsonen arazoak gehiago konprenitzen dituztelako. Ni gazteagoa nintzenean ez ziren halakoak ulertzen, baztertu egiten zen halako jendea. Lagun zirkulutik edota kuadrillatik apartatzen zituzten, atentzioa gehiagotan deitzen zitzaien... ez zegoen horrelako pertsonak tratatzeko trebetasun nahikorik.

*M.I.G.P:* Orain gehiago sustatzen da pertsonaren ahalduntzea. Buruko osasun arazoak dituzten pertsonak parte hartzaileagoak dira orain euren osatze prozesuan. Bizitza independentea izan, lan egin eta familia bat sortu dezake, beste edozein pertsonak bezala. Pausoak eman eta lorpenak erdietsi dira, oraindik egiteko gauza asko falta diren arren. Hedabideei dagokionez, aipatuko nuke badaudela eurentzako gidak, informazioa nola eman ikasteko balio dutenak.

**Buruko osasun arazoak izan eta emakumea izateak estigma bikoitza dakar?**

*M.I.G.P:* FEDEAFESeko (Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarteen Euskadiko federazioa) emakumeen berdintasunerako sailean nago. Elkarte horrek ikerketa ugari plazaratu ditu emakumeei eta buruko osasunari buruz. Buruko osasun arazoak ditugun emakumeok diskriminazio bikoitza pairatzen dugu. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, generoaren faktorea funtsezkoa da buru osasunean, generoak determinatzen duelako gizonek duten boterea eta kontrola eta emakumeek euren bizitzeko dituzten ahalmen sozioekonomikoak. Posizio sozialak, gizartean jasotzen duten tratua eta arriskuak pairatzeko dituzten aukerak determinanteak dira. Depresioa, antsietatea eta kexa somatikoak emakumeek bereziki pairatzen dituzten gaitzak dira, eta ezgaitasun bat dutenei ere eragiten diete.

Beharrezkoa da arreta egokia bermatzea buru osasunerako zerbitzuetan, duintasunaren eta autonomiaren erabateko errespetuan oinarritutako arreta bermatzeko eta, modu horretan, ezgaitasunak dituzten pertsonen Nazio Batuen Erakundearen hitzarmena betetzeko.

Estatu mailan ere ari gara emakumeen eta buru osasunaren gaia lantzen, estatuko emakume sarearen bidez, Madrilen. Bertan parte hartzen dut nik.

**Asasamen aurtengo kanpainan arreta berezia jarri nahi izan duzue suizidioaren gaian. Zer dela eta?**

*M.I.G.P:* Urtero ospatzen dugu Asasamen Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna. Data hori baliatzen dugu buru osasunaren garrantzia nabarmentzeko. Aurten “Bizitzarekin bat egin” lema hautatu dugu. Buruko Osasunaren Munduko Federazioak hautatu du suizidioa aurten lantzeko gai gisa.

Suizidioaren gaiari modu transbertsal batean heltzea dugu helburu, modu horretan bere eragina ahultzeko. Kontuan izan behar dugu suizidioa osasun publikoa-

**“Uste dut buru osasuneko arazo bat diagnostikatu izanak lagundu egin nauela nire bizitza bideratzen”**

ren arazo larria dela edozein herrialdetan, jende askok egiten baitu bere buruaz beste urtero. Munduan urtero 800.000 pertsona suizidatzen dira, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera.

Espainian 2017an suizidioa izan zen heriotzaren kanpo-faktore nagusia. 3.679 pertsona hil ziren, 2.718 gizon eta 961 emakume, aurreko urtean baino % 3,1 gehiago. Lotura bat dago suizidioaren eta buruko osasun arazoen artean. Suizidio kasuen %65-95 inguru oso erlazionatuta dago mota horretako arazoekin. Gaitz eskizofreniko bat duten pertsonen suizidio-tasa bederatzi aldiz handiagoa da. Depresio handien kasuetan, buruaz beste egiteko arriskua 21 aldiz handiagotzen da. Elikadura desoreken kasuan 33 aldiz handiagoa da eta drogomenpekotasunaren kasuan 86 aldiz handiagoa.

Horregatik, beharrezkoa da suizidioaren garrantziaz ohartaraztea eta arrisku egoeran egon daitezkeen pertsonak eta euren senideak orientatzea. Horrez gain, funtsezkoa da baita ere mitoekin eta ideia okerrekin amaitzea, estigmatizazioarekin amaitzeko.

*E.C.B:* Suizidioa prebenitzeko funtsezkoa da oinarri emozional handia eta sinesmen batzuk izatea. Gaixotasuna onartu eta ezagutu behar da.

Zure buruari aitortu behar diozu une txar batetik igarotzen ari zarela, baina ez dela betirako, sufrimendutik ateratzen dela. Bizitza honetan denak du konponbidea.

Posiblea da hainbat arlotako arazoak (lana, sentimenduak...) gainditzea, tratamendu medikoarekin, laguntza psikologikoarekin eta familia edota lagunak bezalako beste babes batzuekin. Hori freno ona da suizidioa prebenitzeko.

*M.I.G.P:* Suizidioa prebenitzeko beharrezkoa da gaiaz hitz egitea, bere buruaz beste egitea pentsatzen ari den pertsona asko sufritzen ari delako. Inork ez du bere buruaz beste egin nahi.

Suizidioa prebenitzeko jarduerek gizartearen hainbat sektoreen arteko elkarlana eskatzen dute: hezkuntza, lana, merkataritza, zuzenbidea, politika,hedabideak... ez da osasun arazo hutsa, gizarte osoari eragiten baitio. Egoera zaurgarrian dauden kolektiboekin esku hartzeak egitea ere aurreikusi daiteke: abusuak pairatu dituzten pertsonak, buruko osasun arazoak dituzten herritarrak, errefuxiatuak...

*E.C.B:* Hemendik omen txiki bat eskaini nahiko nieke buruko arazo bat izateagatik baztertuak sentitu diren pertsona guztiei.

*M.I.G.P:* Laguntza behar dutela uste duten pertsona guztiek hurbilen duten elkartera jo dezakete. Behar duten babesa eta laguntza jasoko dute bertan. Ez daude bakarrik.

# EGITARAUA

ASASAM elkarteak jarduera ugari antolatu ditu Buru Osasunaren Nazioarteko Eguna dela eta.

## *10.10 Osteguna*

12:00 LAUDIO

**EKITALDI INSTITUZIONALA ETA MANIFESTUAREN IRAKURKETA**
**FEDEAFESeko (Buru gaixotasuna duten pertsona eta senide elkarteen Euskadiko federazioa) kideek hartuko dute parte. Ondoren ekitaldi sinbolikoa egingo da. Zuhaitz bat landatuko da Lamuza parkean. Bazkaria egongo da jarraian, Amurrion**

Kasinoa

## *10.20 Igandea*

10:30 LAUDIO ETA AMURRIO

**BURU OSASUNAREN ALDEKO MARTXA**
**Laudio eta Amurriotik abiatuko dira parte hartzaileak eta Parke Linealean barrena joango dira. Luiaondon batuko dira eta jatekoa eta edatekoa izango dituzte "La pajarera" karpan. Izen emateak 3 euro balioko du**

## *10.27 Igandea*

10:00 LAUDIO

**BURU OSASUNAREN ETA KIROLAREN ALDEKO TORNEOA**
**Aurrebenjamin kategoriako zortzi talde lehiatuko dira, CD Laudioren laguntzarekin. Sarrerak 2 euro balioko du**

Ellakuriko kirolgunea

## *10.29 Asteartea*

18:00 LAUDIO

**"DEPRESIOA ETA ARRISKU SUIZIDA"**
**Edorta Elizagarateren hitzaldia**

Kultur etxeko Arraño aretoa

## *11.05 Asteartea*

12:00 LAUDIO

**ELKARBIZITZA SANOAREN ALDEKO FUTBOL PARTIDUA**
**La Milagrosa ikastetxearekin**

Granja kiroldegia

## *11.22 Ostirala*

20:00 LAUDIO

**POESIA ERREZITALDIA**

Amurrio Antzokia

## elkarrizketa

# “Apaiz guztiok ez dugu berdin pentsatzen”

**CIRIACO MOLINUEVOk** IA MENDE ERDI EMAN DU LAUDION APAIZ LANETAN. OMENALDIA EGIN ZIOTEN IRAGAN LARUNBATEAN HAINBAT NORBANAKO ETA ERAGILEREN ARTEAN.

Testua eta argazkia
**Txabi Alvarado Bañares**

**Mende erdi daramazu Laudion, baina gasteiztarra zara jaiotzez.**

Datorren urtarrilean beteko da mende erdi. Gasteizen jaio nintzen. 25 urterekin sartu nintzen seminarioan eta zazpi urte igaro nituen bertan. Lapuebla de Labarca izan zen apaiz gisa izan nuen lehen destinoa, bi urte egon nintzen herri horretan. Nire asmoa Belgikara joatea zen, ikastera. Baina gero hona etortzea proposatu zidaten, eta nahiko tematu ziren ni konbentzitzen. 35 urterekin etorri nintzen hona, 1970. urtean.

**Trantsizioaren garaian iritsi zinen Laudiora.**

Zuk trantsizioa deitu nahi badiozu ba trantsizioa izango zen, bai. Berritze giroa zegoen, ez soilik Laudion. JOC (Juventud Obrera Cristiana) eta HOAC (Hermandad Obrera de Acción Católica) erakundeen bidez harremana izan nuen lan munduarekin. Gainera, nik eraikuntzan lan egiten nuen apaiz izan baino lehen.

**Futbolaria ere izan zinen.**

Bai. Gasteizen eta Bilbon egon nintzen lanean eta denbora librean futbolean jokatzen nuen. Indautxurekin fitxatzeko aukera ere sortu zitzaidan, baina ordurako nik argi nuen zer egin nahi nuen. Gustuko nuen futbola, baina besterik gabe.

**Hasieratik zenekien apaiza izan nahi zenuela?**

Ez. Eraikuntza enpresa batean egiten nuen lan eta arestian aipatutako hainbat mugimendurekin nuen harremana, euretan zuzenean sartuta ez nengoen arren. Jende askorekin izan nuen erlazioa.

**Nolakoa zen garai horretako Laudio?**

Aurretik ezagutzen nuen herria. Nire aitaren familia Amurriokoa zen eta udan joaten nintzen bertara eta Baranbiora. Laudioko jaietan ere egona nintzen.

Herriko egoera berezia zen alderdi laboral, politiko zein erlijiosoen aldetik. Nik ez nuen arazorik izan. Nire plana garatu nuen: errealitatera gerturatzea eta herritarrengandik gertu bizitzea, gazte zein langileengandik gertu. Harreman asko izan nuen batzuekin zein besteekin. Ez dut gaizki pasatu izanaren oroitzapenik.

Herriko bizitzara batu nintzen,bizilagunekin erlazionatuaz: langileekin, bizitza sozialean murgilduta zeuden pertsonekin... aurrera joan naiz apurka apurka.

**Larunbatean egin zizuten 50 urtetan egin duzun lana eskertzeko omenaldia. Laudio Ikastolako kideek bertan parte hartu zuten. Zer paper bete zenuen zuk ikastolaren sorreran?**

Laguntzeko eskatu zidaten asanbladen koordinatzaile

**“Apaiz kristaua izateak konpromiso bat suposatzen du askatasun eta justiziarekiko”**

gisa, eta joan nintzen. Denbora batez egon nintzen bilerak dinamizatzen. Ondoren, gurasoen eta ikastolako bazkideen esku geratu zen proiektua.

**Ekitaldi erlijiosoetan euskara erabiltzen lehenengoetarikoa izan zinen, ez?**

Laudiora etorri nintzenean euskara ikasten aritu nintzen hainbat urtez. Lapuebla de Labarcako erdalduna zen: Ebro ibaiaren ertzean zegoen, Logroñotik oso gertu. Laudioko egoera bestelakoa zen. Momentua ere garrantzitsua izan zen: ikastola sortu zen eta hainbat lan egitea eskatu zidaten. Modu naturalean hasi ginen euskara erabiltzen. Mezak euskaraz egiten hasi ginen gero, 70 hamarkadaren amaieran. Larunbatetan egiten genituen. Euskara konpromiso bat zen niretzat, ez zen kontu kultural hutsa.

**Herritik eta langile klasetik hurbil dagoen eliza aldarrikatu duzu beti.**

Nik beti pentsatu dut gizarte honetan apaiz kristaua izateak konpromiso bat suposatzen zuela justiziarekiko eta askatasunarekiko, gure herriaren, Euskal Herriaren, barruan, baina beste herri batzuekin harremanak izanda betiere. Hori funtsezkoa zen niretzat. Beste batzuei agian gaizki irudituko zitzaien, ez dakit.

**Zure konpromiso politikoak arazorik sortu dizu?**

Poliziaren azterketetatik igaro behar izan nintzen hainbat aldiz, baina ez nuen aparteko arazorik izan. Apezpikuarekin eta elizarekin ere tentsioren bat edo beste egon zen, baina besterik gabe. Nik herriarekin izan dut harremana. Pablo Gorostiaga udalean zegoenean berarekin izan nuen harremana, eta baita bere anaiarekin ere, misioilari gisa baitzegoen.

Esan nahi dudana da: Herritik gertu egoteak ez zidan aparteko arazorik sortu. Ni herriko apaiza naiz, hemen errotua nago eta erantzuna eman behar diet hemen dauden arazoei ikuspegi humano eta kristau batetik.

**Nola aldatu da Laudio 50 urte hauetan?**

Gizarteak erabateko aldaketa kulturala izan du; eta horrek eragina izan du elizan, logikoki. Ez soilik euskararen alorrean. Gizarte justu eta solidario baten aldeko konpromisoan ere sakondu da. Gauza batzuk normalizatu dira, beste batzuk ez. Gauzak asko aldatu dira. Elkartasuna eta eraldaketa sozial zein politikoarekiko konpromisoa ahuldu egin dira, Horrek eragin zuzena izan du jendearen bizimoduan; askoz modu azalekoagoan bizi da.

**Eta elizaren jardunak, zer bilakaera izan du?**

Elizaz hitz egiterako orduan, eliza zer den zehaztu beharko genuke lehenbizi.

**Ados, zer da eliza zuretzat?**

Komunitate bat dela esan daiteke. Baina gero, praktikan, ezberdintasun handiak egon dira apaiz batetik bestera, egoera batetik bestera. Horregatik, elizaren inguruan hitz egiterako orduan arazo, une eta egoera zehatzei buruz hitz egin behar da.

**Kanpotik ikusita, eliza oso anitza dela esan daiteke. Askapenaren teologiatik eskuin muturreko fededunetara barnebiltzen du. Nola kudeatzen da aniztasun hori?**

Aniztasun hori oso modu bizian bizi izan da. Gaur egun ez da horren deigarria baina existitu egiten da aniztasun hori. Iberiar penintsulan modu berezian eman da bilakaera, egon diren aldaketa politiko zein ekonomikoen ondorioz. Apaiz guztiak ez gara berdinak, ez dugu berdina pentsatzen... baina bizitzaren isla da hori, ez gara aparte dagoen zerbait.

**Beharrezkoa da fededuna izatea aipatu duzun konpromiso hori garatzeko?**

Ez. Askotan karitatea zerbait erlijiosotzat hartzen da. Baina karitatea gertutasun, sentikortasun eta konpromiso jarrera bat da. Batzuetan badu erro erlijioso bat, izan kristaua edo ez. Karitatea ez da bilketa egiteko talde txiki batera edo Caritasera mugatzen. Caritasek, teorikoki, sentikortasuna sustatzeko balio du eta sentikortasun hori baliatzen da justizia, irekitasuna eta elkartasuna eraikitzeko.

**“Txikitu egin da elizaren eragina, hainbat arrazoi medio”**

**Zein da Laudioko elizaren egoera?**

Elizaren eragina txikitu egin da, ahuldu egin da, hainbat arrazoi medio. Jende gutxiago bertaratzen da elizara eta ospakizun erlijiosoetara, hori horrela da. Erlijioan sostengatutako konpromiso maila txikitu egin da. Hala ere, badaude oraindik konpromiso hori mantentzen duten taldeak. Aldaketa sozial handia egon da 70. hamarkadatik hona. Gaur egun argitasun, zuzentasun eta konpromiso gutxiago dago.

**Badaude apostasia bultzatzen duten mugimenduak. Zer nolako presentzia du apostatatzeko joerak Aiaraldean?**

Nik dakidala hemen ez du presentziarik mugimendu horrek. Baina gizartea bere horretan asko sekularizatu da, asko galdu da zentzu erlijiosoa. Lehen eliza eta parrokia erreferentziazko puntuak ziren eta orain ez horrenbeste. Hainbat arrazoi daude tartean: politikoak, kulturalak, ekonomikoak, erlijiosoak... hainbat faktore daude.

**Elizaren barruan egondako eskandaluek (pederastia kasuak, adibidez) eragina izan dute elizaren ahultzean?**

Orain eman zaie garrantzia. Hedabideek lana egin dute alor horretan eta gai horretan inplikatutako pertsonek ere askatasun handiagorekin hitz egiten dute orain. Lehen horrelako kasuak ez ziren argitara ateratzen. Orain, horrelakoak gertatzen badira salatu egiten dira. Aldaketa kultural garrantzitsua eman da eta horrek eragina izan du.

**Azken urteetan bestelako erlijioen presentzia handitu da eskualdean. Laudioko meskitak urteak daramatza irekita. Izan duzue harremanik bertako komunitate musulmanarekin?**

Nik harremana izan dut baten batekin, baina modu pertsonalean. Arabiar kulturaren eta elizaren arteko distantzia oso markatua egon da. Eurek euren egitasmoa burutu dute eta ez dugu inolako harremanik planteatu, nik dakidala. Baina nik topatzen dudan jende guztiarekin dut harremana, izan musulmana, protestantea edo ateoa. Kaleko jendearekin erlazionatu naiz ni, ez soilik elizara datorrenarekin.

**Erretiratua zaude, baina lanean jarraitzen duzu.**

Jubilatu nintzenean apezpikuari esan nion prest nengoela herrian laguntzen jarraitzeko, baina konpromiso estrukturalik izan gabe. Ez dut ardura zehatzik, baina lagundu egiten dut. Ni ez naiz omenaldien oso zalea. Ia 50 urte daramatzat Laudion apaiz gisa, baina beste batzuk ni bezainbeste denbora daramate beste alor batzuetan.

AIARALDEA GAUR

# agenda

2019/10/09
2019/10/22

## Untzuetaren urtemuga ospatuko dute larunbatean

Datorren larunbatean ospatuko du Untzueta dantza taldeak bere 35.urteurrena. Egun osoko egitaraua prestatu dute. Aretako taldea izanik, bertan gauzatuko dute festa; prestaketa erraza izan ez dela aitortu arren: "Gure aurtengo helburuetako bat urteurrena antolatzea izan da, orain arte Untzueta dantza taldean parte hartu duten kideak biltzeko asmoarekin. Aldi berean, euskal dantzak eta euskal kultura aldarrikatzea eta goraipatzea nahi dugu".

Denbora asko eman dute prestaketetan: "Taldean aukera desberdinak atera ziren: jai handi bat prestatu, jai txiki bat taldekoentzako bakarrik... denetarik pasa zitzaigun burutik, halako egun oso bat ospatzea ez baita erraza". Urtarrilean zehaztu zituzten nondik norakoak. Egun polita izango dela aurreratu dute: "gure sustraiak ezagutzeko aukera egongo da". Hargatik, herritar orori luzatu diote bertaratzeko deia: "Nahiz eta Untzuetarekin erlazioren bat izan dutenentzat bereziagoa izan, herri guztiari zabaldutako jaia izango da. Beraz, urriaren 12a egutegietan gordetzea eta jendea jaira eta bazkarira animatzea gustatuko litzaiguke. Izan zirelako gara eta garelako izango dira!".

## Sagar Eguna egingo dute hirugarrenez

Sagar Egunaren III. edizioa antolatuko du Kukutze taldeak datorren urriaren 20an Laudioko Aldai plazan. Aurreko bi edizioen eskema berdina jarraituko du aurtengoak ere. Tokiko ekoizle eta artisauen produktuen azoka egongo da goiz osoan zehar. Sagar jotzea ere egingo da, eta modu horretan ateratako zukua dastatzeko aukera egongo da. Norgehiagoka bat egingo dute sagar zukua ateratzera animatzen diren guztien artean. Parte hartzeko 688892944 telefonora edo sagareguna@gmail.com helbidera mezu bat bidali beharko da aurretik. Sagar tarta txapelketa ere egongo da.

## Azken joerak ikusteko beta Laudio Moda desfilean

Datorren urriaren 19an -larunbata- egingo da Laudio Moda desfilearen VII. edizioa, Aldai plazan. Datorren denboraldiko joerak ikusteko aukera egongo da bertan, herriko hainbat saltokiren eskutik: 1971, Lencería y moda infantil Aurori, Can-Can, Charol, Kukuma, Modimela, Monai, Nina Life Styling, Olympus kiroldenda, Trece13, Tximeleta Boutique eta Unan jantzi denda.

Sarrerak saltoki horietan eta Apill elkartearen Facebook orrian egongo dira salgai. Hala ere, pantaila bat jarriko dute plazan ekimena zuzenean jarraitzeko. 19:30ean hasiko da desfilea.

## Egun osoko egitaraua Mikel Deunako jaietan

Patin eguna antolatu du Lautxirrinka irristaketa klubak datorren iganderako, urriak 13. Laudioko Aldai plaza izango da ekimenaren epizentroa. Aurreko urteetan bezala, haur zein helduentzako ibilbideak egongo dira eta erakustaldia egongo da gero.

## MUSIKA

**10.11**
**Ostirala**
20:00 LAUDIO
**IBIL BEDI**
Faktoria

**10.13**
**Igandea**
12:30 OKONDO
**ARABA KANTAN**
Untzagako Santa Mariaren eliza

**10.18**
**Ostirala**
20:00 LAUDIO
**SILVIO ETA RODRIGUEZ**
Faktoria

## KIROL JARDUERAK

**10.12**
**Larunbata**
11:00-15:50 URDUÑA
**URDUÑA HIRIA ZIKLOKROS SARI NAGUSIA**
Foru plaza

**10.13**
**Igandea**
8:00 URDUÑA
**URDUÑAKO MENDI IBILALDIA**
Foru plaza

**10.13**
**Igandea**
LAUDIO
**IX. PATIN EGUNA**
**10:30 // Izen ematea**
**11:00 // Umeentzako ibilbidea**
**11:30 // Helduentzako ibilbidea**
**12:30 // Erakustaldiak**
Aldai plaza

**10.18**
**Ostirala**
19:00 AMURRIO
**PELOTAZALE KLUBAREN AURKEZPENA**
Udal frontoian

## HITZALDIAK

**10.14**
**Astelehena**
17:00 URDUÑA
**“ARRISKUEN PREBENTZIOA ETXEAN”**
Jubilatuen etxea

**10.15**
**Asteartea**
18:00 OROZKO

## BESTELAKOAK

**10.12**
**Larunbata**
10:00 OROZKO
**“JAI TRADIZIONALA ETA HORREN KODEA”**
**Irteera**
Orozkoko Museoa

**10.12**
**Larunbata**
ARETA
**UNTZUETA DANTZA TALDEAREN JAIA**
**11:30 // Dantzari kontzentrazioa**
**11:45 // Kalejira**
**12:00 // Dantza emanaldia**
**13:45 // Triki poteoa**
**15:00 // Bazkari herrikoia**
**17:00 // Kantukada eta animazioa**
**19:30 // Kontzertuak: Iratzar erromeria eta Dantzetan Jarrai**
Turismo bulegoa

**10.12**
**Larunbata**
11:30 URDUÑA
**“URDUÑAKO ERRALDOI ETA BURUHANDIAK”**
**Bisita gidatua**
Turismo bulegoa

**10.15**
**Asteartea**
14:00 LAUDIO
**NEGOZIOEN SUSPERKETARAKO PROGRAMA**
Laudioko Garapen Agentzia

**10.16**
**Asteazkena**
17:30 LAUDIO
**EUSKARAZKO IRAKURLE-KLUB FEMINISTAREN AURKEZPENA**
**Hileko hirugarren asteazkenean egingo dira saioak, 17:30etik 19:30era**
Udal Liburutegia

**10.17**
**Osteguna**
9:30 AMURRIO
**“EKIN BREAKFAST”**
**Merkataritza elektronikoa izango dute hizpide “ekintzaile gosarien” aurtengo edizioan**
Refor enpresaldea

**10.17**
**Osteguna**
14:00 LAUDIO
**NEGOZIOEN**

## Naizen elkarteak hitzaldia eskainiko du Orozkon

Naizen elkarteak hitzaldia eskaini du Orozkon datorren urriaren 15ean, "Badira zakila duten neskak eta bulba duten mutilak" izenburupean. Haur eta nerabe transexualen errealitateaz mintzatuko dira. Donibane aretoan izango da zita arratsaldeko seiretan.

# Kartelera

DONIBANE ARETOA

### 6.000 metroan ere

**URRIAK 11**
OSTIRALA
19:00

LAUDIOALDE ARETOA

### Erase una vez en... Hollywood

**URRIAK 12**
LARUNBATA (3 euro)
17:30 / 20:00

AMURRIO ANTZOKIA

### El Rey León

**URRIAK 13**
IGANDEA (3,75 euro)
17:30

LAUDIOALDE ARETOA

### Elkano: Lehen mundu bira

**URRIAK 13**
IGANDEA (3 euro)
17:30

AMURRIO ANTZOKIA

### Quien a hierro mata

**URRIAK 13 eta 14**
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00

LAUDIOALDE ARETOA

### Ad Astra

**URRIAK 19**
LARUNBATA (3 euro)
17:30 / 20:00

AMURRIO ANTZOKIA

### Ad Astra

**URRIAK 20 eta 21**
IGANDEA ETA ASTELEHENA
(5 / 3,75 euro)
19:30 / 20:00

LAUDIOALDE ARETOA

### Lazzaro feliz

**URRIAK 26**
LARUNBATA (3 euro)
17:30 / 20:00

**"BADIRA ZAKILA DUTEN NESKAK ETA BULBA DUTEN MUTILAK"**
**Naizen elkartearen hitzaldia**
Donibane aretoa

**10.16**
**Asteazkena**
17:00 LAUDIO
**"SEXUA ETA GENEROA BEREIZTEN DAKIGU?"**
Erabilera anitzeko udal aretoa

## TAILERRAK

**10.14**
**Astelehena**
17:30 LUIAONDO
**"BIZI ZAITEZ BIZI"**
**55 urtetik gorako herritarrentzako ikastaroa norberak bere osasuna zaintzeko**
Eskola zaharrak

## HAURRENTZAKO JARDUERAK

**10.10**
**Osteguna**
18:30 ARTZINIEGA
**"AMELI ETA IRATI, ZAZPI NESKA AUSART"**
**Ipuin musikatua**
Udal Liburutegia

**10.12**
**Larunbata**
17:30 LAUDIO
**SORGIN ZAPATUAK**
**Txuski eta Purruski pailazoen ikuskizuna, askaria eta iturriak egiteko eskulan saioa**
Lamuza parkeko Frontoi etxean

**10.17**
**Osteguna**
18:00 LAUDIO
**HAURRENTZAKO IRAKURKETA KLUBA**
**Parte hartzeko aurrez izena eman beharko da Lamuzako udal liburutegian, liburutegia@laudio.eus helbidera idatzita edo 94 403 49 60 telefonora deituta**
Udal Liburutegia

**10.19**
**Larunbata**
17:30 LAUDIO
**SORGIN ZAPATUAK**
**Eskulanetako saioa egingo da ume guztiak arkeologo bihur daitezen. Jarraian askaria egongo da**
Lamuza parkeko Frontoi etxean

**NEGOZIOEN SUSPERKETARAKO PROGRAMA**
Laudioko Garapen Agentzia

**10.17**
**Osteguna**
19:00 OROZKO
**MURUETAKO AUZO BATZARRA**
Sozialean

**10.18**
**Ostirala**
19:00 OROZKO
**SAN MARTIN ETA GOIKIRIKO AUZO BATZARRA**
Txokoan

**10.19**
**Larunbata**
9:00 OROZKO
**"Bizitzeko astiak: Mendiko lantegian kozinatu eta jokatzea"**
**Irteera**
Orozkoko museoa

**10.19**
**Larunbata**
10:00 OROZKO
**ZALOAKO AUZO BATZARRA**
Ermitan

**10.19**
**Larunbata**
11:00 URDUÑA
**"URDUÑAKO MUSIKA ONDAREA"**
Antiguako santutegia

**10.19**
**Larunbata**
12:00 OROZKO
**IBARRAKO AUZO BATZARRA**
Txokoan

**10.19**
**Larunbata**
URDUÑA
**1949KO KINTAREN JAIA**
**Urriaren 12a izango da izena emateko azken eguna, hotelean bertan**
Orduña Plaza Hotela

**10.19**
**Larunbata**
19:30 LAUDIO
**LAUDIO MODA DESFILEA**
Aldai plaza

**INFO +**
aiaraldea.eus

kultura

# “Bideo jokoetan ikusten diren gauzak egin behar dira, eta hori artea da”

**PELLO URETA OFIZIALDEGI** (Artziniega, 1988) BIDEO JOKO BAT SORTU DU, DIGIPENEN UNIBERTSITATEAN BAITAGO IKASTEN. SEKTOREAK ARTEAREKIN DUEN LOTURA, OZTOPOAK ETA JOKOAREN SORKUNTZA PROZESUA AZALDU DITU.

Testua
**Izar Mendiguren Cosgaya**

**Arte Ederrak ikasita, bideo-jokogintzan murgildu zara. Zergatik hautatu duzu eremu hori?**

Arte Ederrak ikasi nuen, baina tabernan eman ditut azken urteak lanean. Arteari buruzko master baten bila jarri nintzen, eta artea bideo-jokoetan egiteko ikastaroa topatu nuen.

Digipenen unibertsitatean bi gradu daude, artekoa bata eta programaziokoa bestea. Nik artekoa hautatu nuen. Batzuk animazioak egitera joaten dira, beste batzuk bideo-jokoak... Talde bakoitzean espezializate ugari daude.

**Bideo joko bat garatu duzu.**

Bai. Bigarren mailan, arteko eta programazio taldea elkartzen gaituzte, eta denon artean sortu behar izan dugu bideo-jokoa. Bi lauhileko izan ditugu horretarako. Horren emaitza da lana, bi ikasgai uztartu ditu.

**Zertan datza jolasa?**

Gure asmoa joko zail bat egitea zen, pentsatzekoa. Gauzak askotan gaizki egitea nahi genuen, pentsatu eta berriro ondo egiteko. Azkenean, baina, zailtasuna murriztu dugu, jende askorengana iristeko. Zentzu horretan, erdizka geratu da. Banpiroak dira protagonista, kripta batean esnatzen da jokalaria eta bere aurka doazen pertsonaiak gainditu behar ditu. Esaterako, espektro formarekin beste pertsonaiak hartu behar ditu, eta haiek kontrolatuz puzzlea bete. Nire lana diseinatzailearena izan da.

**Zertaz arduratu zara zu?**

Jokoak bost maila ditu, nahiz eta hasieran 9 edo 12 maila izatea nahi genuen. Ateak non jarri pentsatu behar izan dut, jokalariaren aurka doazen pertsonaiak non kokatu, partaidea nora igo daitekeen eta nora ez erabaki...

Paperean oso polita da dena, baina programatzaileek gero kolokan jartzen dute, agian ezin delako zuk nahi duzun tokian egin planteatutakoa, hor dago borroka.

**Zer nolako ezaugarriak ditu jokoak?**

Joko guztia 2 dimentsiotan egina dago, bi motatako animazioak daude: tradizionala (dena marraztuz) eta Bipain programaren bidezkoa (marrazkiak jarri eta mugimendua agindu behar diozu). Nik bigarrena baliatu dut, batez ere.

Strawssberry Juice da Pello Uretak eginiko jokoaren izena. **Digipen**

## *“Gure asmoa joko zail bat egitea zen, baina azkenean erraztu behar izan dugu”*

**Arteak eta bideojokoek zertan dute zerikusia?**

Edozein bideo jokotan ikusten dituzun gauzak egin behar dira, eta hori artea da. Tetriseko karratuak norbaitek egin zituen! Jolas guztietako pertsonaien artean artea egin duen norbait dago.

**Zer nolako industria dago bideojokoen sektorean hemen?**

Zaila da hemen lan egitea. Madrilen eta Bartzelonan badira enpresak, baina nire ideia kanpora joatea da, momentuz. Bilbon ezer gutxi dago, nahiz eta Gasteizen animazioarekin lotuta lan egiteko aukera egon. Proiektu txiki ugari daude Iberiar penintsula osoan, baina ezagunak direnak oso gutxi.

**Baduzu beste proiekturik buruan?**

Hirugarren mailan nago orain eta 3 dimentsiotako laburmetrai bat ekoitzi beharko dugu, 2 minutukoa.

**Arte Ederren ildotik, erakusketak ere eginak dituzu, ezta?**

Pare bat, Artzinegan eta Hondarribin. Erasmusarekin Venezian izan nintzen, eta bertan ere egin nuen erakusketa bat. Edozelan ere, ez zen aparteko ezer izan.

# kultura

# “Faktoriara gerturatzen denak ikusiko du benetan nolakoa den Ibil Bedi”

**IBAI OSINAGA GOGORCEDA** (IRUÑEA, 1998) IBIL BEDI TALDEKO KIDEA DA. OSTIRALEAN (URRIAK 11) AURKEZTUKO DUTE EUREN LEHEN LANA AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAN.

Testua
**Izar Mendiguren Cosgaya**

**Lehen diskoa aurkezten zabiltzate. Gustura emaitzarekin?**

Bai, oso naturala iruditzen zait. Amets saxofonistak idatzi ditu letra batzuk, eta nik besteak. Berak esaldi batean laburtzen du: kantu batek ona izateko egia esan behar du. Ez du tranparik, eta hori oso naturala da. Gure abesti eta letrak oso egiazkoak dira, oso erreala da, nolabait. “Erreala” bezala definituko nuke diskoa, oso modu naturalean egina baitago.

**Nolakoa izan da grabaketa prozesua?**

Pistetan grabatu dugu, baina grabazioa oso bitxia izan zen, niretzat behintzat. Honen aurretik, Altxatu taldearekin 3 disko grabatu nituen eta modu tradizionalean osatu genituen: bateriak grabatuta lehenbizi, eta gero baxuak, gitarrak eta ahotsa.

Oraingoan alderantziz izan da prozesua, eta soinuan nabaritzen da, ez da tipikoa. Jota estudioko arduradunak esan zigun alderantziz egiten saiatu nahi zuela, hasieran kitarra akustikoa eta ahotsa jaso nahi zituela, kantuaren muina atera eta hortik eraikitzeko gainontzekoa.

**Zeri buruz hitz egiten dute letrek?**

Oso inportanteak dira letrak talde guztietan. Gure kasuan, gehienetan, musikaren aurretik sortuak izan dira. Horrek letrari garrantzia handiagoa ematen diolakoan nago.

Ondorioz, testu bakoitza oso pertsonala da. Jendeak disko nahiko negatiboa dela esan digu, triste samarra. Letrak gure arazo pertsonalak dira. Horien bidez nahi izan dugu besteengan sentsazio bereziak sortu. Ama kantua, esaterako, nire letra da. Duela 2 urte hil zen nire ama, eta hiru egun pasata idatzi nuen abestia. Kasu honetan, ama bati maite duzula ez esatearen sentsazioa deskribatzen du.Horrek, adibidez, jende askori mugitzen dio barrena, denok dugulako norbait hil dena zenbat maite dugun esan izan gabe, arazo oso unibertsala da. Musikarekin uztartzea ondoren etorri da gure sorkuntza prozesuan. Horregatik, esanahiaren arabera aukeratu dugu musika mota.

**Arazo personal eta unibertsalak ardatz izanik, nola lortu duzue batasuna diskoan?**

Ez da bilatua izan. Nire amaren heriotzak aldatu egin ninduen, lehen idazten nuenarekin konparatuta. Ametsen kasuan beste arazo batzuk egon dira, baina dena egon da lotuta galerekin. Disko osoan zehar islatzen da galerek nola baldintzatzen duten gure bizitza, horri nola aurre egin, horrek zer dakarren...

**Faktoriara gerturatzen denak zer ikusiko du?**

Gure kantuak zuzenean entzuteko eginak daude. Ezberdina da kontzertu batek uzten dizun sentsazioa, edo diskoarena. Benetazko abestiak kontzertuetan daude, nire ustez. Faktoriara gerturatzen denak ikusiko du benetan nolakoa den Ibil Bedi. Diskoa kantu horien bigarren interpretazioa dira, lehenengoa kontzertuetan dago. Orain arte izandako emanaldietan giroa oso familiarra izan da, eta kantuak azaltzeko aukera izan dugu.

**Aurrera begira, nolako bilakaera gustatuko litzaizueke izatea taldeak?**

Disko guztiak izan beharko lukete momentuaren isladapena. Ingalaterrako punk diskoek garaian gertatutakoa erakusten dute. Gure kasuan, gertatu zaizkigun gauzen inguruko abestiak egin ditugu. Hori da gure ideia, bizitakoa islatzea. Abesti berriak egiten ari gara orain, eta urte bukaeran zerbait berria ateratzea nahiko genuke, nahiz eta ez dakigun denboraz nola arituko garen. Litekeena da, hala ere, abesti horietako bat Laudion estreinatzea, eta hori izan daiteke doazenentzat sorpresa txikia.Hori bai, momentuko gauzak eta musika estilo ezberdinak izatea nahiko genuke, gure estiloa hau izateak ez du esan nahi horretan segituko dugunik. Gure musika letraren araberakoa izanen da, hori da gure filosofia.

# Julian Martinez Villar musikari laudioarra omenduko dute Antonio Oyarzabal pianistak eta Ariadna Martinez sopranoak

Julian Martinez Villar laudioarrak ibilbide oparoa egin zuen musikagintzan. **Wikipedia**

Testua
**Aitor Aspuru Saez**

**Diskoa grabatu dute Oyarzabal eta Martinezek musikari laudioarra omentzeko. Azaroaren 16an aurkeztuko dute Laudioko Kasinoan**

Julian Martinez Villar 1870ean jaio zen Laudion eta musikari moduan ibilbide oso luzea egin zuen. Alde batetik, irakaslea eta zuzendaria izan zen, baina, horrez gain, pianista eta konpositorea ere bazen.

Musikaren bideak Bilbora eraman zuen ikasle eta geroago irakasle gisa izateko. Musikagile lanetan, besteak beste, *Boga, boga, marinela* abestiaren konponketak egin eta argitaratu zituen, eta 1905ean Ciudad de Mexico hiriko antzokiko zuzendari hautatu zuten.

Mexikon hainbat ardura izan zituen, eta 1914an Estatu Batuetara jo zuen, Laredora -Texas-, hain zuzen. Herrialde horretan ere zuzendari gisa lan egin zuen, harik eta 1944an hil zen arte.

**Omenaldia**

Ibilbide hori dela medio, Antonio Oyarzabal pianistak eta Ariadna Martinez sopranoak, biak laudioarrak, diskoa sortu dute herriko musikaria omentzeko.

Azaroaren 16an 19:00etan aurkeztuko dute lana Laudioko Kasinoan eta herritar oro gonbidatu dute. Bide batez, Egoitz Bernaolak Martinez Villarren lorpenak berreskuratu eta oroitzeko eginiko lana aitortu dute musikariek.

# Amurrioko XXXIII. arte sariketako lan irabazleak, La Casonan ikusgai

"El gran testigo" eta "Plaza Rekalde, Bilbao, BIAD" lanak izan dira 2019ko Amurrioko hiribildua XXXIII. arte sariketako irabazleak, epimahaiaren eta publikoaren sariak irabazi baitituzte hurrenez hurren.

Erakusketa atondu dute La Casonan lan irabazleekin eta epaileek hautatutako beste batzuekin.

Kuadro sarituetako bat. **Amurrioko Udala**

# *Armugan* film luzeko protagonista izango da Iñigo Martinez

Pirinioetan ari dira grabatzen pelikula. **Armugan**

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

*Armugan* filma grabatzen ari da Iñigo Martinez dantzari eta aktore laudioarra Pirinioetan. Jo Sol da filmaren zuzendaria. "Berak proposatu zidan filmeko protagonista izatea, telebistan egin dut lan berarekin", azaldu du Martinezek, "hau ezberdina da, film bat da. Esperientzia bikaina izaten ari da niretzat".Herritarrei heriotzaren prozesuan laguntzen dien pertsona baten papera egingo du laudioarrak filmean. Urrian egingo dituzte grabaketa guztiak eta datorren urtean estreinatuko da, data guztiz zehaztuta oraindik ez dagoen arren.

# kultura

Oscar Sanchez Aldamaren lana gailendu da Mundua kategorian, Nuria Sanchezen irudia talde argazkietan eta Iraide Vallejorena Aiaraldea modalitatean. Sariak banatu egin zaizkie dagoeneko. Udako lehiaketaren aurtengo ediziora 110 lan aurkeztu dira guztira eta 1.415 bozkaren bidez ebatzi dira irudi garaileak.

# Udariklik argazki lehiaketak baditu irabazleak

Testua eta argazkiak
**Izar M. Cosgaya**

Iragan astean bukatu zen Udariklik argazki lehiaketako bozketa fasea. Ekainaren 21ean abiatu zen dinamika, informaziotik haragoko eskaintzaren baitan. Aurtengo ediziora 110 lan aurkeztu dira eta 1.415 bozkaren bidez ebatzi dira irudi garaileak.

Oskar Sanchez Aldamaren lanak 275 boto jasota lortu du "Mundua" kategoriako saria: Maroñoko Guzurtegi jatetxean bi lagunentzat asteburuko menua. "Mundua ezagutzen furgonetaz" du izenburu argazkiak eta Italian egina dago: "Furgonetaz joan ginen Amurriotik Italiara". Nuria Sanchezek, aldiz, "Teo Aretako jaietan" lemapean eskuratu du taldekako irudi onenaren aitortza, 52 lagunen babesarekin. Hala, Orozkoko Osabarena nekazal hotelean 75 euroan zenbatetsitako talde batentzako afari bonoaz gozatuko du.

Aiaraldea kategorian, berriz, Iraide Vallejoren argazkia gailendu da, 39 botorekin. Ondorioz, Orduña Plaza Hotelean bi lagunentzat gaua eta spa zirkuitua izango du saritzat. "Arespalditzakoa da irudia. Iluntze polita zegoenez, nire amonaren zaldiari atera nion argazkia", azaldu du.

"MUNDUA" KATEGORIAKO IRABAZLEA

"AIARALDEA" KATEGORIAKO IRABAZLEA

TALDEKAKO ARGAZKIEN KATEGORIAKO IRABAZLEA

etxea

# Etxebizitza bat erreformatzearen abentura eta kalenturak

Hasi da ikasturtea. Aldaketa garaia izan ohi da honakoa, eta urteko garai egokia izan daiteke, negua iritsi baino lehen, etxebizitzan ere hainbat erreforma egiteko.

Baina horrelako obrek buruhauste ugari ekartzen dituzte sarritan. Zorionez, eskualdean badaude suertatu daitezkeen erronka guztiei aurre egiteko prest dauden profesionalak.

Etxebizitza baten erreforma egitea prozesu luze eta korapilatsua da sarritan. Planoek, aurrekontuek, eskatu beharreko lizentziek... energia eta denbora asko xahutu dezakete. Zorionez, gure eskualdean badaude etxebizitza bat goitik behera erreformatzeko beharrezko zerbitzu guztiak eskaintzen dituzten profesionalak, arotzetatik dekorazio adituetara.

Jarraian, etxebizitza baten erreforma batean sartu eta onik ateratzeko hainbat aholku helaraziko dizkizuegu:

**Plana**

Plan argi bat izatea komeni da, zer nahi dugun aldez aurretik zehatz mehatz zehaztea, alegia. Fase honetan, arkitekto baten laguntza oso garrantzitsua izan daiteke, buruan duguna errealitatera eramateko modurik errazen eta seguruena aholkatuko digulako.

Era berean, garrantzitsua da etxebizitzaren neurri ahalik eta zehatzenak hartzea. Planoak eskura izatea oso lagungarria izan daiteke horretarako. Kontuan izan gerora eskatuko ditugun aurrekontuak hartzen ditugun neurrien araberakoak izango direla.

**Aurrekontuak**

Enpresa ezberdinen aurrekontuak alderatzea ez da dirudien bezain erraza. Amaierako prezioari begiratzen zaio sarritan, eskaintzen dena ahaztuta. Funtsezkoa da dokumentazio guztia birpasatzea, enpresa guztiek berdina eskaintzen diguten ala ez jakiteko. Modu horretan, hainbat sorpresa ekidin ahalko ditugu. Komeni da obrak hasi arretik kontratua sinatzea. Komeni da baita ere enpresari Erantzukizun Zibileko aseguru bat kontratatua izatea exijitzea, obretan egon daitezkeen matxurak bideratu ahal izateko.

## Aiaraldean badaude beharrezko zerbitzu guztiak eskaintzen dituzten profesionalak

Kontuan hartu bi aukera izango dituzula: gremio bakoitza banaka kontratatzea edo erreforma osoa egingo duen enpresa batengana jotzea. Lehen aukera merkeagoa suertatu daiteke, baina kasu horretan zure esku geratuko litzateke obraren koordinazioa.

**Egurrezko estrukturak**

Egurrezko estrukturak bereziki sentsibleak dira udazkenen eta neguko klimarekiko. Tenperatura eta eguraldi aldaketek hezetasunak edo arrakalak sortu ditzakete material horrekin eginiko gauzetan. Zorionez, eskualdean badaude lehengai horrekin aritzen diren hainbat aditu, edozein zalantza edo arazori erantzuna emateko prest.

**Margoketa**

Paretak margotzea izan ohi da etxeetan egiten den erreformarik ohikoenetako bat. Lan erraza dirudien arren, pena merezi du profesional batekin hitz egiteak lardaskeria bat ekiditeko.

**Lizentziak**

Horrez gain, kontuan izan behar da etxebizitzetan erreformak egiteko batzuetan beharrezkoa dela udalean obra baimenak eskatzea edo, gutxienez, egingo dituzun lanen berri ematea. Tramite burokratiko horiek zalantza ugari sortzen dituzte sarritan, udal bakoitzak bere araudi propioa duelako, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren arabera aldatu daitekeena. Gauzak hala, tokiko erakundeen webguneetara edota udaletxeetara jotzea da lehen eskuko informazioa lortzeko modurik zuzenena, gerora ezusteko desatseginak izatea ekiditeko.

MOROZ S.L.
Eraikuntza-lan eta berritzeak
IGELTSEROTZA OROKORRA
• Eraikuntza-lan berria • Fatxadak
• Baserrien birgaitzeak • Pladurra eta margoa
• Teilatuak • Berritzeak eta gremioen koordinazioa
Abiagabarri 15, 3.D, AMURRIO
661 229 776
moroz.mihai@yahoo.com

PINTURA Y DECORACIONES
GARTZIA
Margoketa eta apainketa orokorra
Mikrozementu aplikazioa
Pladur
Parket flotatzaile jartzea
Margoturiko papera jartzea
Fatxaden estaldurak
LAUDIO - Araba T. 689 219 826
dekogartzia@hotmail.com

SOUTO
ALBAÑILERÍA
ELADIO SOUTO NOVO
IGELTSEROTZA OROKORRA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
Sukaldeak · Bainugelak · Barnealdeak
Margoa · Pladurra · Eskaiola
Jose Matia kalea 8, 5.B LAUDIO
Tel.: 94 672 57 27 - 629 413 652
lalosouto@gmail.com

TORRE ANAIAK S.L.
ZURGINTZA - EBANISTERIA
LEIHOAK · ATEAK · PARKETA
Horma-armairuak, sukaldeak eta askotariko altzariak neurrira egiten ditugu.
Lakadura.
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Eras de Polancos,1- URDUÑA 695 940 922
info@torreanaiak.com / www.torreanaiak.com 695 940 923

MAKING EGURRA S.L.
ZUREZKO ERAIKUNTZAK ETA EGITURAK
24 urteko esperientzia
Iñaki Grandio
Tel. 688 630 392
Gran via kalea 21, 1.A URDUÑA

ibaiondo
CARPINTERIA
EBANISTERIA
Enkarguzko altzariak
Sukalde eta bainugelako altzariak
Horma-armairuak Merkataritza-instalazioak
Barne eta kanpo arotzeria Lakatzeak
Oholtzen kokapena Parket flotatzailea
Aldaiturriaga industri poligonoa, 2. pab.
AMURRIO 945 39 38 80

## kirola

Emakumeen kirola ikustarazteko jardunaldiak egin zituzten igandean Laudion, Vital Fundazioaren ekimenez. Hainbat kirol taldek hartu dute parte egitasmoan. Igeriketa, atletismo, eskubaloi, txirrindularitza, pilota, tranpolin, taekwondo, futbol, esgrima irristaketa, gimnasia erritmiko, tenis, saskibaloi, karate, judo eta errugbi erakustaldiak ikusteko aukera egon da.

# Plazetara egin du salto emakumeen kirolak

### BI PLAZA

***Aldai plazan eta Herriko plazan garatu ziren ekintza guztiak, goizeko hamarretatik arratsaldeko ordubietara arte***

### ELKARTEEN PARTE HARTZEA

***Laudioko eta Arabako kirol talde ugarik hartu zuten parte ekimenean, euren jardunaren erakustaldiak eginez edota jolasak eskainiz***

# *kirola*

## EGUERDIKO EKITALDIA

***Eguerdian izan zen ekitaldi nagusia. Hainbat kirolarik irakurri zuten manifestua, emakumeen kirola ikusarazteko neurriak aldarrikatuaz***

## KIROL ANDANA

***Kirol ugari ikusi eta prektikatzeko aukera izan zuten erakustalditik igaro ziren emakumeen. Kirol horietako batzuk Aiaraldean praktikatzen dira. Beste batzuk (esgrima, kasu), aldiz, ez***

*kirola*

Goikomendi Arku-tiro Sariketaren VIII. edizioa egin zen iragan igandean Amurrion, Izarzako basozainaren etxearen inguruetan. 83 arkularik hartu zuten parte norgehiagokan. Gauzak hala, EAEn aurten egin den txapelketa jendetsuena izan zen. Amurrion egiten diren ekimenak zita garrantzitsu bihurtu dira Euskal Herriko arkularientzat.

# Amurrioko arku-tiro txapelketa, urteko zita jendetsuena

Testua eta argazkiak
**Txabi Alvarado Bañares**

Igande goizean ohikoan baino asaldatuago esnatu zen Amurrioko Izarzako zonaldea. Goizeko hamarretatik aurrera dozenaka lagun bildu ziren bertan dagoen basozainaren etxe ohian, arkuak eskuetan eta geziak zorroetan, Goikomendi Sariketari hasiera emateko prest.

Zortzigarren edizioa izan da aurtengoa. Zortzi urtetan ezinbesteko zita bihurtu da norgehiagoka hori Euskal Herriko arkularientzako. "EAEn aurten egin den arku-tiro probarik jendetsuena izan zen igandekoa, 83 pertsonek hartu zuten parte", nabarmendu du Josemi Elejalde antolatzaileak. Amurrio Arku Kirol Taldeko kideak positiboki baloratu du aurtengo edizioa: "eguraldiak lagundu egin zuen, azken unean soilik egin baitzuen euria".

**Entrenamenduak**

Hiruzpalau norgehiagoka antolatzen ditu Amurrioko taldeak urtero, hainbat modalitatetakoak: aretokoak (kiroldegian), dianetakoak, libreak eta basokoak. Egunerokoan, aldiz, entrenatzeko batzen dira, Refor industriaguneko zelai batean. "Astearte eta ostegun arratsaldetan egiten ditugu saioak", azaldu du Elejaldek, eta herritar orori luzatu dio gerturatzeko gonbita. "Kirola probatzen uzten dugu, ekipamendua utzita. Gero, jarraitzen dutenek euren ekipo propioa eskuratzen dute, baina ez da garestia izaten".

## Duela 26 urte sortu zen Amurrio Arku Kirol Taldea. Gaur egun Arabako klubik jendetsuena bihurtu da

**26 urteko ibilbidea**

Duela 26 urte sortu zen Amurrio Arku Kirol Taldea. "Lau arkulari bertaratu ziren herrira Urkabustaiztik eta kirola irakasteko tailer bat antolatzea proposatu zioten udalari", oroitu du Elejaldek, "15 pertsona bertaratu ginen ikastaro horretara. Arrakasta handia izan zuen eta bigarren edizio bat antolatu zuten. Ondoren, 11 pertsona bildu eta taldea sortu genuen".

Orain askoz gehiago dira taldean: "9 ume daude eta 54 heldu. Araban bost klub daude, eta gurea da handiena.

JENDETSUENA

***83 arkularik parte hartu zuten igandeko norgehiagokan. Gauzak hala, aurten EAEn egin den arku-tiro lehiaketarik jendetsuena izan da Amurriokoa***

## BASOAN BARRENA

***Parte hartzaileak Basozainaren etxean batu ziren. Taldeka banatu ziren bertan eta basoan murgildu ziren gero***

## ANIMALIEN FIGURAK JO PUNTU

***Kirolariek animalien figurak izan zituzten jo puntu. Panpin bakoitzak diana bat zuen marraztuta, gezia non sartu behar zen zehazten zuena***

## VIII. EDIZIOA

***Txapelketaren VIII. edizioa izan zen igandekoa. Amurrioko taldeak urtean antolatzen duen norgehiagoka garrantzitsuena da***

# kirola

Urduñako Ziklokrosak abiatuko du Euskadiko txapelketa. Datorren larunbatean (urriak 12) izango da proba, 350 kirolari baino gehiagoren parte hartzearekin.

Laudioko nazioarteko txapelketak hartuko dio lekukoa hilabete amaieran, hilaren 26an egingo baitute XXXII. Laudioko Ziklokrosa.

# Ziklokrosa Aiaraldean, lokatz arteko marka baino gehiago

Urriaren 12an izango da Urduñako ziklokros proba eta hileko azken larunbatean, aldiz, Laudiokoa. **Aiaraldea.eus**

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Lokatza. Hori da ziklokrosek txirrindularien gorputzetan eta bideetan utzi ohi duten marka. Markak haustera etorriko dira, ordea, eskualdera txirrindulari federatuak datozen asteetan. Ohi bezala, Laudion eta Urduñan izango dira Aiaraldeko probak.

Hain zuzen, Urduñan abiatuko dute Euskadiko Ziklokros txapelketa, urriaren 12an. Urduñako Txirrindulari Elkarteak antolatutako ekimenak 350 lehiakidetik gora bilduko ditu Kintana eta zezen-plaza artean. Horretarako lau aste eman dituzte zirkuitua prestatzen urduñarrek, Asier Oiartzabal kidearen esanetan: "Zezen-plazan, esaterako, arezko ibilbidea kokatuko dugu". Auzolanean egin dute prestaketa, eta zaleentzat hiru astez egongo da eskura, "bi aste lehenagotik probatu daiteke, eta probatik astebetera kenduko dugu, pixkanaka".

Eskailerak, arrapalak, bihurguneak... orotariko oztopoak gainditu beharko dituzte txirrindulariek. "Goizetik arratsaldera arte luzatuko da egitaraua, oso egun polita izango da, kirolariak ikustera eta animatzera gonbidatzen zaituztegu", erantsi du urduñarrak, "ordutegia europarra izango da". Kadete mailakoek abiatuko dute lasterketa, 11:00etan. Txikienak -juniorrak- aterako dira segidan, 11:45ean, eta 12:30ean haurrak. Horrenbestez, adin guztiek izango dute lehiatzeko eta gozatzeko tartea, "federatuta baldin badaude".

Hitzordu nagusiak eguerdian izango dira: 14:00etan arituko dira masterrak, eta 14:50ean emakumezkoak. "Aurten, gainera, sari berdinak egongo dira neska zein mutilentzat", nabarmendu du Oiartzabalek. Azken lasterketa -eliteena eta 23 urtez azpikoena- arratsaldez gauzatuko dute, 15:50 aldera. Ikuskizuna ziurtatuta dagoela-eta, txosna jarriko dute beste behin ere: "Horrela, batetik, gastuei aurre egiteko dirua lortuko dugu. Eta, bestetik, jendea bertan geratzeko janaria zein edaria eskaini. Saratxoko hanburgesak eta Eusko Label haragia edukiko ditugu".

**Laudioko proba, nazioartekoa**

Urriko azken larunbatean hartuko dio Laudiok lekukoa Urduñari. Hain zuzen, XXXII. Laudio Ziklokrosa ospatuko dute, Laudioko Txirrindulari Elkarteak antolatuta. Espainiar estatuko ligaren barruan dago zita, eta Ellakuriko zelaietan barrena atonduko dute ibilbidea. Sare sozialetan aurreratu dutenez, 9:10etik hasita, etengabe egongo dira lasterketak; bigarren sari banaketa 15:10 aldera izango baita.

**Lau aste eman dituzte urduñarrek ibilbidea prestatzen, auzolanean. Zaleentzat hiru astez egongo da eskura**

Irteera gunea zeharkatzen lehenbizikoak master 40, 50 eta 60 kategoriakoak izango dira; 9:10ean, hain zuzen. 10:05ean aterako dira Master 30 kategoriako txirrindulariak eta 11:00etan Kadeteak. Hala, lehen sari banaketari 11:50 inguruan ekingo diote.

Bigarren txanpa batean neurtuko dituzte indarrak, beraz, gazteek: 12:20ean juniorrak abiatuko dira, 13:15ean emakumezkoak eta 23 urtez azpikoak eta 14:10ean elitekoak eta 23 urtez beherakoak. Lehia bezain ordutegi estua aurreikusi dute, horrenbestez.

kirola

TXIRRINDULARITZA

# Txirrindularitza uztea erabaki du Luisa Ibarrolak

Marka esanguratsuak erdietsi ditu Luisa Ibarrolak azken urteetan.

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Txirrindularitza profesionala uztea erabaki du Luisa Ibarrolak. Kirolari saratxoarrak bere Instagram kontuan eman du albistea: "ez da erabaki erraza izan, baina hartu dut".

Adierazi duenez, "buelta asko" eman dizkio buruari erabakia hartu baino lehen. "Banekien aldatu behar nuela, ikusten nuelako ez nuela jada horrenbeste gozatzen. Gozatzea da garrantzitsuena, betetzen zaituen zerbait egitea, eta nik banekien ez nengoela egiten".

**Eskerrak**

Ibarrolak eskerrak eman nahi izan dizkie bere ibilbide osoan zehar alboan egon diren guztiei eta berarekin kontatu duten taldeei: "Betikoei, une txarretan laguntzeko asmoz zugana hurbiltzen direnei eta hondar aleren bat jarri duen orori, eskerrik asko". Txirrindularitzak emandakoa ere izan du gogoan, "mundua ezagutzeko aukera eskaintzeagatik eta inoiz ahaztuko ez ditudan balore batzuk emateagatik". Egiten duenarekin gozatzen duen pertsona bat izan nahi duela nabarmendu du kirolariak.

**Ibilbide oparoa**

Ibilbide oparoa burutu du Aiaraldeko txirrindulariak azken urteetan. Duela urtebete ekin zion profesional gisa lehiatzeari, Euskal Herrian zein nazioartean postu garrantzitsuak erdietsi eta gero. Aurten UCI Bizkaia-Durango taldearekin aritu da errepideko denboraldian. Otsailean 26. postua eskuratu zuen Munduko Ziklokros Txapelketan, sub-23 kategorian.

Txirrindularitza alboratuta, fisioterapia ikasketetan zentratuko da saratxoarra.

SASKIBALOIA

# Entrenatzaile onenaren saria jaso du Made Urietak

Testua
**Txabi Alvarado Bañares**

Madelen Urieta amurrioarrari eman diote Saskibaloi Entrenatzaileen Espainiako Elkarteko kideek 2018-2019 denboraldiko entrenatzaile onenaren saria. Real Madrileko entrenatzailea de Pablo Laso ere saritu dute, gizonezkoen kategorian.

**Bigarren aldiz**

Entrenatzaile amurrioarrak sari hori jasotzen duen bigarren aldia da honakoa. Araskiko entrenatzailea da Urieta eta azken urteetako garaipenak bideratzen lagundu du: Erreginaren Kopa bi aldiz eskuratu du Gasteizko saskibaloi taldeak, eta bi play off ere jokatu dituzte titulua lortzeko.

Horrez gain, Espainiako Selekzioan laguntzaile gisa ere jarduten du entrenatzaile aiaraldearrak. Talde horrek garaipen esanguratsua lortu du berarekin: Eurobasket txapelketako urrezko domina.

HANDBIKE

# Bigarren postua erdietsi du Ione Basterrak Espainiako Kopan

Pozik itzuli da Valentziatik Ione Basterra Olaguenaga. "Atzo eman nion amaiera aurtengo denboraldiari, Espainiako Kopan bigarren postu handi bat eskuratuta", adierazi du sare sozialetan. Ricardo Tormo zirkuituan izan zen norgehiagoka.

# herriko plaza

## Haizea

Zorionak! Zaren bezalakoa izateagatik maite zaitugu. Jarraitu horren guapa ta goxo urte askoan! Ospatuko dugu!

**Lagunak**

## Gurutze

Zorionak Guru, beti alai, kementsu eta lagun ona!!! Musu anitz zure lehengusinaren partez!!!

**Mari Paz**

## BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Urriaren 23an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Eragiten duena / Aritzea | | Izan, eduki / Irungo herritarrak | | Saski handi / Hitza | | Zurginak | |
| | | | | | | | | |
| | EH-ko mendilerroa / Egun guztietan | | | | | | | |
| | | | | | | | | |
| | Amerikako estatua / HERRIA ❖ | | Ezezta / Adarrez joka | | Indioa / Berriz, ostera | | Ardi, hitz elkartzeetan / Bokal bitibila | |
| | | | | | | | Ezeztatzeko / Buka | |
| | Uda, uda partea / Lizarrako ibaia | | | | | | Lehenengoa / Bokala | Bokala / Larru |
| | | | Zaborrak / Dago | | | | | |
| | Txerri / Bakarka aritzen dira | | | | Kontsonantea / 'D' erantsita droga mota | | Lehena eta azkena / Musika nota | Errepikatuz, txori mota |
| | | | | | | | | |
| | Kasik | | Libre | | | | Lotan | |

❖ Aiaraldeko udalerria (irudian, udalerri horri dagokion udaletxea)

### ERRAZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 2 | 5 | | 3 | | 8 | 6 |
| 3 | 8 | 6 | | | 4 | 7 | 5 | |
| 5 | | | 6 | 8 | 7 | 9 | | 2 |
| 4 | 2 | | | | 5 | | 6 | 7 |
| 7 | 6 | | 8 | 2 | | 3 | | 4 |
| 8 | | 3 | 7 | 4 | | | 2 | 5 |
| | 5 | 7 | 3 | | 8 | 2 | 4 | 9 |
| 2 | | | | | | 6 | | |
| | | | | | | | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 5 | | 3 | 6 | 9 | 4 | | |
| | | | 8 | 7 | | 6 | 3 | |
| | | | | 2 | | 9 | | |
| 7 | | | | | | 3 | 6 | |
| | | | 6 | 3 | | | | |
| | | 6 | 4 | | 2 | | | 8 |
| 2 | | | | | | 8 | 4 | |
| 6 | 7 | | 5 | | | | | 9 |
| | 4 | | | | 8 | 5 | 7 | |

### ZAILA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 7 | | | 5 | |
| 5 | 3 | | 9 | | | | 6 | |
| | | 1 | | | 2 | | 7 | 9 |
| | | 6 | | | | | 8 | |
| | 7 | 2 | | | | | | 4 |
| | 5 | | 7 | 4 | 9 | 6 | | |
| | 8 | | | | 7 | | 9 | |
| | | | | | | | | 2 |
| | 4 | | 8 | | | 5 | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 9 | 2 | | 6 | | 5 | | |
| 8 | | | | | 5 | 4 | | 6 |
| | | | | 9 | 8 | | | |
| | | 5 | | | 1 | 6 | | |
| | 7 | 8 | 6 | | | | | 3 |
| 6 | | | | | | | | |
| | | 9 | | 4 | | | | |
| | 6 | | | 1 | 3 | | | 2 |
| | | | | | | | 3 | |

**DENBORAPASEN SOLUZIOAK**

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

## Lan-eskaintzak

**Lanean istripuak ekiditeko teknikaria** LAUDIO
**Logopeda** LAUDIO
**Mantenu elektrikoko langilea** LAUDIO
**Fresatzailea** LAUDIO
**Zerbitzaria** LAUDIO
**Elektromekanika teknikaria** LAUDIO
**Automobilgintza mekanikaria** LAUDIO
**Elektrikaria** LAUDIO
**Erredakzio langilea Aiaraldea Hedabidean**

LAN-ESKAINTZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

## Guardiako farmaziak

**Urriak 10** PEREDA eta RIVERA
**Urriak 11** FERNANDEZ eta C. FUERTES (errefortsua YARZA)
**Urriak 12** FERNANDEZ eta SOLAUN (errefortsua YARZA)
**Urriak 13** FERNANDEZ eta SOLAUN (errefortsua YARZA)
**Urriak 14** YARZA eta MENOYO
**Urriak 15** CACERES eta EGUIA (errefortsua PEREZ)
**Urriak 16** IBARROLA eta A. FUERTES (errefortsua HERNANDEZ)
**Urriak 17** PEREZ eta AIS
**Urriak 18** HERNANDEZ eta RIVERA
**Urriak 19** HERNANDEZ eta C. FUERTES (errefortsua RIVERA)
**Urriak 20** HERNANDEZ eta C. FUERTES
**Urriak 21** PEREDA eta SOLAUN
**Urriak 22** CACERES eta A. FUERTES (errefortsua PEREDA)

## Zozketa

## MUSIKA DISKOEN bilduma zozketa

Dientes de Luna, Harria, Mattin Lerissa, Maddi Zubeldia, Larrabideak, Matilda eta Belatz taldeen lanek osatzen dute sorta.

**Parte hartzeko sartu** www.aiaraldea.eus en
**Zozketa data:**urriaren 4an, 12:00etan.

# Aiaraldea txiki

## Labirintoa

Lagundu erroiari bere zuhaitzeraino heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tarteak dira.

Idatzi hemen esaldia.

## itzala

Zein da mamuaren itzal zuzena?

## Izua

Osa ezazu sudokua, IZUA hitzak dituen hizkiekin.

## SOLUZIOAK



DRUMGORRI ROCK SCHOOL ESKOLA
2019-20
matrikulazio epea zabalik
Ukelelea
Bateria
Pianoa
Gitarra
Baxua
Kantu klasea
Haur-musika hezkuntza
Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan
699 88 35 63

# Kontra

## Aiaraldetik mundura



**Idurre Mendibil**

JAIOTERRIA
**LAUDIO (1995)**

BIZILEKUA
**SERBIA**

BIDAIAREN ARRAZOIA
**HERRIALDEA EZAGUZEA**

## “Euskal Herrikoaren oso antzekoa da Serbiako bizimodua”

**Serbian bizi zara... noiztik?**

Bai, urtarriletik nabil hemen. Betidanik izan dut Balkanetara jotzeko nahia, zonalde oso interesgarria iruditzen zait eta pasaden urtean Belgradora etortzeko aukera izan nuenean nahiko argi ikusi nuen.

**Zer dela eta erabaki zenuen munduan zehar bidaiatzea?**

Nik uste ez dela egun batean altxatu eta erabaki nuen zerbait izan, nahiko naturalki gertatu den gauza baizik. Betidanik eduki dut beste lekutara joateko eta jende eta kultura berriak ezagutzeko nahia. Beraz, hau egiteko aukera izan dudanean, aprobetxatu egin dut.

**Itsaso gabeko estatua izanik, Euskal Herriarekiko zein aldaketa nabaritu dituzu?**

Batez ere janari aldetik, ez da arrain asko saltzen supermerkatuetan eta jatetxetan ere ez da menu askotan agertzen. Baina, horrez gain, ez dut hainbesteko aldaketarik susmatu. Turismo aldetik, itsasoa ez dago Serbiatik oso urrun, hegazkinez Montenegroko kostaldea 40 minutura dago. Beraz, jende gehiena bertara edo Greziara joaten da udan.

**Zerk harritu zaitu gehien hango bizimodutik?**

Euskal Herrikoaren oso antzekoa dela. Hona etortzerakoan, bizitzeko modua Alemaniakoaren edo Europako beste herrialdeetakoen antzekoa zela imajinatzen nuen. Beti esaten da herrialde hauetan bertako jendea ezagutzea oso zaila izaten dela, jende itxia izaten delako eta beharbada sozialki oso aktiboak izaten ez direlako, ez gure era berean gutxienez.

Baina hemengo jendea oso jatorra eta irekia da, ezagutu eta hamar minutu beranduago, kafe edo garagardo bat hartzera gonbidatzen zaituzte. Beti dago norbait planen bat egiteko prest eta jendea kalean paseatzen edo terrazetan zerbait hartzen ikusi daiteke nonahi.

**Eta bizi ohituretatik?**

Jaiak antzekoak dira, baina gauza da Serbiar gehienak kristau ortodoxoak direla eta Gabonak, adibidez, gu baino 13 egun geroago ospatzen dituzte, egutegi julianoa erabiltzen baitute ospakizun hauetarako. Gainera, Slava deituriko ospakizuna daukate, non familia bakoitzaren patroia ospatzen duten. 2014an UNESCOk jai hau kultura ondare izendatu zuen.

**Zein da Serbiako zure toki kuttunena? Zergatik?**

Serbiak sekulako ondare naturala dauka eta herrialdean zehar leku txundigarriak aurkitu ditzakezu, Uvac edo Tarako parke naturalak adibidez.

Baina nik, tokiren bat hautatzekotan, Belgrado hautatuko nuke dudarik gabe. Seguruenik ez da Europako hiribururik politena izango eta turista batentzako gauza garrantzitsu guztiak 3-4 egunetan ikusi daitezke. Baina bertan denbora gehiago igarotzen duzunean eta hiria benetan ezagutzen hasten zarenean gauza aldatu egiten da.

Bizitzaz beteriko hiria da eta txoko harrigarriak aurkitu ditzakezu gutxien espero duzun lekuan. Musika kontzertuak, festibalak, arte galeriak, kaleetako muralak, milaka kafe eta taberna, merkatuak... denetarik aurkitu daiteke historiaz beteriko hiriburu honetan.

### SERBIA

**DESKRIBAPENA**
XV. mendean Otomandar inperioak konkistatu zuen lurraldea, XIX. mendera arte. Bigarren mundu gerarren ostean Yugoslaviako Errepublika Federal Sozialistaren parte bilakatu zen. 2006an bihurtu zen berriro herrialde independente, hainbat guda pairatu eta Montenegrotik banatu eta gero.

**AZALERA**
88.361 kilometro koadro.

**BIZTANLEAK**
7,1 milioi biztanle.

**HIZKUNTZA**
Serbiera.

**Argitaratzailea:** Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
**Tirada:** 10.000 ale.
**Maiztasuna:** Hamabostekaria
**Lege gordailua:** BI-1230-2013
**Posta elektronikoa:** egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus
**Publizitatea:** publizitatea@komunika.eus
**Tlfnoa:** 688 62 53 94
**Helbidea:** Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400
**Telefonoak:** 94 656 85 54/688 62 59 00
**Web-gunea:** www.aiaraldea.eus
**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

**ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:**
Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martinez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguiluz, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernandez de Pinedo, Endika Arribas Gulias, Eunate Molinuevo Olabarria eta Koldo Rodriguez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio

Grafik
Tellería 2, Laudio (Araba)
94 672 65 43// info@grafiksarea.com

ausolan · Basalaraina Euskal Topagunea

Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Saila